

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Bizkaiko Lurralde Historikoaren  
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de  
Bizkaia**

**2014**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	12
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	12
II.1.1 Bizkaiko Foru Aldundia.....	12
II.1.2 Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea .....	12
II.1.3 Enpresa Sektore Publikoa .....	12
II.2 Kontuen gaineko iritzia .....	13
II.2.1 Bizkaiko Foru Aldundia.....	13
II.2.2 Enpresa Sektore Publikoa .....	13
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	15
III.1 Bizkaiko Foru Aldundia.....	15
III.1.1 Aurrekontua eta kontabilitatea.....	15
III.1.2 Zerga sarrerak .....	15
III.1.3 Langileria gastuak.....	16
III.1.4 Administrazioko kontratazioa.....	16
III.1.5 Diru-laguntzak.....	17
III.2 Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea .....	18
III.2.1 Langileria gastuak.....	18
III.2.2 Administrazioko kontratazioa.....	18
III.2.3 Diruzaintza .....	19
III.3 Enpresa Sektore Publikoa .....	19
III.3.1 Aurrekontua.....	19
III.3.2 Langileria gastuak.....	19
III.3.3 Kontratazioa.....	20
III.3.4 Diru-laguntzak.....	21
III.3.5 Hornitzaileei ordainketa epeak .....	21
IV. FINANTZA ANALISIA .....	22
IV.1 BFaren doitutako Aurrekontuaren Emaidza .....	22
IV.2 Diruzaintza Geldikin Garbi Likido Erabilgarria .....	24
IV.3 Aurrekontuko kontabilitateari meneratzen ez zaizkion erakundeen finantza alderdiak ...	24
IV.4 Foru sektore publikoaren zorpetzea.....	25
IV.5 Ondorioa.....	25



<b>V. URTEKO KONTUAK</b> .....	<b>27</b>
V.1 Bizkaiko Foru Aldundia.....	27
V.2 Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea .....	32
V.3 Foru enpresa-erakunde publikoak .....	35
V.4 Foru merkataritza sozietateak.....	36
V.5 Foru fundazioak .....	41
<b>ALEGAZIOAK</b> .....	<b>43</b>
<b>ABREVIATURAS</b> .....	<b>77</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>79</b>
<b>II. OPINIÓN</b> .....	<b>82</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	82
II.1.1 Diputación Foral de Bizkaia.....	82
II.1.2 Instituto Foral de Asistencia Social .....	82
II.1.3 Sector Público Empresarial.....	82
II.2 Opinión sobre las Cuentas.....	83
II.2.1 Diputación Foral de Bizkaia.....	83
II.2.2 Sector Público Empresarial.....	83
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN</b> .....	<b>85</b>
III.1 Diputación Foral de Bizkaia .....	85
III.1.1 Presupuesto y contabilidad.....	85
III.1.2 Ingresos tributarios.....	85
III.1.3 Gastos de personal.....	86
III.1.4 Contratación administrativa.....	86
III.1.5 Subvenciones .....	87
III.2 Instituto Foral de Asistencia Social .....	88
III.2.1 Gastos de personal.....	88
III.2.2 Contratación administrativa.....	88
III.2.3 Tesorería .....	89
III.3 Sector Público Empresarial.....	89
III.3.1 Presupuesto.....	89
III.3.2 Gastos de personal.....	89
III.3.3 Contratación .....	90
III.3.4 Subvenciones .....	91
III.3.5 Plazos de pago a proveedores .....	91



<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>93</b>
IV.1 Resultado Presupuestario Ajustado de la DFB .....	93
IV.2 Remanente de Tesorería Neto Líquido Disponible .....	95
IV.3 Aspectos financieros de entidades no sujetas a contabilidad presupuestaria .....	95
IV.4 Endeudamiento del sector público foral.....	96
IV.5 Conclusión .....	96
<b>V. CUENTAS ANUALES.....</b>	<b>98</b>
V.1 Diputación Foral de Bizkaia .....	98
V.2 Instituto Foral de Asistencia Social .....	103
V.3 Entidades públicas empresariales forales .....	106
V.4 Sociedades mercantiles forales .....	107
V.5 Fundaciones forales.....	112
<b>ANEXOS .....</b>	<b>115</b>
A.1 Aspectos generales.....	115
A.2 Modificaciones presupuestarias .....	116
A.3 Remuneraciones personal.....	116
A.4 Gastos corrientes.....	117
A.5 Transferencias y subvenciones concedidas .....	118
A.5.1 Compromisos institucionales .....	119
A.6 Inversiones reales e Inmovilizado intangible y material.....	120
A.6.1 Inversiones reales.....	120
A.6.2 Inmovilizado intangible y material.....	120
A.7 Ingresos, deudores tributarios y provisiones.....	122
A.7.1 Exenciones, deducciones y bonificaciones fiscales.....	124
A.8 Ingresos por transferencias y subvenciones.....	125
A.9 Inversiones financieras a largo plazo y activos financieros .....	126
A.10 Contratación administrativa .....	127
A.11 Análisis de subvenciones .....	130
A.11.1 Subvenciones nominativas.....	130
A.11.2 Subvenciones directas .....	131
A.11.3 Subvenciones concedidas mediante convocatoria .....	132
A.11.4 Subvenciones concedidas en ejercicios anteriores .....	133
A.12 Instituto Foral de Asistencia Social .....	134
A.12.1 Remuneraciones personal.....	134
A.12.2 Contratación administrativa.....	134



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

A.13Sector Público Empresarial.....	136
A.13.1 Gastos de personal.....	136
A.13.2 Contratación .....	137
A.14Cuentas consolidadas del Territorio Histórico de Bizkaia.....	140
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>143</b>

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 7a

Vitoria-Gasteiz, 7 de julio de 2016



## LABURDURAK

IEB	Inbertsioen Europako Bankua.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BOS	Bilboko Orkestra Sinfonikoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EB	Europar Batzordea.
BGP	Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
FPEK	Finantza Publikoen Euskal Kontseilua.
FD	Foru Dekretua.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
FDA	Foru Dekretu Arauemailea.
Elkarkidetza	Elkarkidetza Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea.
FEDER	Eskualdearen Garapen Ekonomikorako Europako Funtsa.
FEAGA	Europako Nekazaritzako Berme Funtsa.
EGF	Europako Gizarte Funtsa.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
GUFE	Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde Autonomoa.
EAAN	Estatuko Administrazioaren Artekaritza Nagusia.
ETZO	Enpresen Trafikoaren gaineko Zerga Orokorra.
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
ELA	Estatuko Loteriak eta Apustuak.
AEFILO	2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
FA	Foru Araua.
AFAO	Abenduaren 29ko 5/2006 Aurrekontuko Foru Arau Orokorra. Diru-laguntzei buruzko Foru Araua 5/2005 FA, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena.
BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
LED	Legegintzako Errege Dekretua.
DA	Diru-laguntzen Araudia, 5/2005 Foru Araua garatzen duena, maiatzaren 31koa, zeinaren indarrez Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen den, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretu bidez onartutakoa.



LZ	Lanpostuen Zerrenda.
AMAS	Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema.
AKS	Arrisku Kapitaleko Sozietatea.
ESS:	Enpresa Sektore Publikoa.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
EBJA	Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen testu bategina.
AFAOTB	Abenduaren 29ko 5/2006 Aurrekontuko Foru Arau Orokorraren testu bategina, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaile bidez onartutakoa.
TVCP/HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.
JU	Jardun Unitatea.
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2015erako Lan Programan erabakitakoari jarraituz, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2014ko ekitaldiaren Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Honako alor hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak, diru-laguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerak.
- Kontularitzakoak: Foru sektore publikoaren kontuak ezargarriak zaizkien kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Foru sektore publikoaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

BLHren Kontu Orokorra honako hauen kontuek osatzen dute: Bizkaiko Foru Aldundiaren kontuek; Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea foru erakunde autonomoaren kontuek eta Enpresa Sektore Publikoarenek (ikus BLHren Kontu Orokorra [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus) helbidean).

Hona hemen enpresa sektore publikoa osatzen duten merkataritzako foru sozietateen eta foru fundazioen xehapena:

### FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK

ERAKUNDEA	XEDEA
1. Estatuko Loteria eta Apustuen Bizkaiko Ordezkaritza	Estatuko Loteria eta Apustu Erakunde Nazionalaren Bizkaiko ordezkaritza
2. Bizkaiko Tutoretza Erakundea	BLHn bizi diren legez desgaituak dauden zaharren tutoretza bere gain hartu eta aldundiak tutoretzapean dituen adingabeen ondasunak administratzeko ardura du.
3. BizkaikOA	Kultur ondarea zabaltzera zuzendutako jardueren kudeaketa, museoen eta azpiegituren kudeaketa osoa eta ondare arkeologikoa zabaltzea.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### MERKATARAITZAKO FORU SOZIETATEAK

SOZIETATEA	% PARTAIDETZA	SOZIETATEAREN HELBURUA
1. Aparkabisa, S.A. ....	79,56	Garraio zentroa eta kamioen aparkalekua.
2. Azpiegiturak, S.A.U. ....	100	Era guztietako azpiegituren obra publikoak proiektatu, eraiki, zaindu eta ustiatzea.
3. Bizkaiko Basalan, S.A. ....	100	Basoko lanak eta natura zaintzeko lanak egitea.
4. Beaz, S.A.U. ....	100	Enpresen lehiakortasuna garatu eta sustatzea, Bizkaia lurralde berritzaile, sortzaile, dinamiko eta ekintzaile bihurtzeko.
5. Euskalduna Jauregia, S.A. ....	100	Musika eta kongresu jauregia eraikitzea eta kudeatzea.
6. Garbiker, S.A. ....	100	Hondakin solidoak tratatzea.
7. Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea, SA (Interbiak, S.A.) ....	100	Bide azpiegiturak eraikitzea, zaintzea eta haiei buruzko azterlanak eta proiektuak egitea.
8. Lantik, S.A. ....	100	Foru administrazioaren informatika zerbitzuak.
9. Seed Capital de Bizkaia, S.Aren kudeatzailea Arrisku-kapitaleko erakundeak, S.A. (Seed Capital) ....	50,64	Arrisku kapitaleko funtsak eta ondareak kudeatzea.
10. Seed Capital Bizkaia Mikro, SCR PYME, S.A. ....	50 (*)	Mikrofinantzaketaren garapena.
11. Zugaztel, S.A. ....	100	Grabazioa, eskaneatzea eta call center-a.

(\*) Gainerako % 50a Araubide komuneko Bizkaiko Seed Capital FCRRi dagokio

Seed Capital Bizkaia Mikro, SCR PYME SA iraupen mugagabearekin 2014ko irailaren 23an eratu zen.

#### FORU FUNDAZIOAK

FUNDAZIOA	% PARTAIDETZA	FUNDAZIOAREN XEDEA
1. Azkue.....	75	Teknologia baliatuz euskara sustatzea eta euskarazko proiektu, ekintza eta material digitalak garatzea.
2. Biscaytik .....	100	Komunikazioaren teknologietan ezagutza sustatzea, hiritarrak Internetera hurbiltzea indartzearen.
3. Bizkaia-Bizkaialde .....	100	Bizkaiko kirolaren sustapen eta garapena, lehenasuna emanez errendimenduko kirolari.
4. Boinas La Encartada.....	59,49	La Encartada txapel fabrikaren kudeaketa, zuzendaritza, mantentze-lana eta sustapena.
5. Juan Crisóstomo de Arriaga - BOS .....	66,67	Bilboko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaritza, mantentze-lana, zaintza eta sustapena.



Boinas La Encartada Fundazioko Patronatuak 2014ko maiatzaren 20an egindako bilkuran Fundazioa desegitea onartu zuen. 2014ko urriaren 31ko finantza egoerak Fundazioaren likidazio balantze modura prestatu dira. Patronatua desegiteko mandatuaren arabera, aktibo ez arruntak erakunde fundatzaileei itzultzen zaizkie horietako bakoitzak fundazioaren sorreran egindako ekarpenaren heinean eta kudeaketa egitekoa BizkaiKOA foru enpresa erakunde publikoak bere gain hartu du, zeinari plantillan dagoen langileria eskualdatzen zaion eta 2014ko azaroaren 1etik aurrera Fundazioak 2014ko urriaren 31n indarrean zituen eskubide eta obligazio guztietan subrogatzen da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **II. IRITZIA**

### **II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **II.1.1 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

BFAk Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabazi modura barne hartzen ditu 34 langileri guztira 2,1 mila euroren zenbatekoan ondotik adierazitakoagatik ordaindutako primek eragindako gastuak: borondatezko erretiroagatik, erabateko ezintasun iraunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik, hain zuzen ere; guztiek ere Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren babesa dute. Plan honek ez ditu martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategineko 51. artikuluan jasotako kausak egiaztatzen, kaleratze kolektiboekin eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko luketenak eta ondorioz, kalte-ordain horiek salbuesteko bide emango luketenak, PFEZaren abenduaren 5eko 13/2013 FAREN 9. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

#### **II.1.2 GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA**

1. GUFEk Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabazi modura barne hartzen ditu ezintasun iraunkorrerengatik eta enplegatu publiko izateari uko egiteagatik bederatzi langileri guztira 532.521 euroren zenbatekoan ordaindutako primek eragindako gastuak; guztiek ere Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren babesa dute. Plan honek ez ditu martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategineko 51. artikuluan jasotako kausak egiaztatzen, kaleratze kolektiboekin eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko luketenak eta ondorioz, kalte-ordain horiek salbuesteko bide emango luketenak, PFEZaren abenduaren 5eko 13/2013 FAREN 9. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
2. GUFEk hornigai eta zerbitzu kontratazioak egin ditu guztira 949.898 euroren zenbatekoan, prozedura irekia saihestuta (ikus A.12.2).

#### **II.1.3 ENPRESA SEKTORE PUBLIKOA**

1. Bizkaia-Bizkaialde Fundazioak jarduerak dinamizatu, baliabideak erakarri eta administrazioko lanak egiteko zerbitzuak kontratatu ditu 2015erako, 120.274 euroren zenbatekoan, publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez, SPKLTBren 191.c) artikulua gintzen duena urratuz (ikus A.13.2).
2. Ondotik zerrendatutako merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek ez dute argindarra eta/edo gas naturala publikotasun eta lehia printzipioak betez kontratatu:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ERAKUNDEA	Euroak milakotan ZENBATEKOA
<b>HORNIDURA ELEKTRIKOA</b>	
Aparkabisa, SA.....	189
Azpiegiturak, S.A.U.....	227
Euskalduna Jauregia, SA.....	746
Garbiker, S.A. ....	100
BiscayTIK Fundazioa .....	119
<b>GAS NATURAL</b>	
Euskalduna Jauregia, SA.....	168

Epaitegi honen ustetan, II.1.1, II.1.2 eta II.1.3 ataletan aipatutako ez-betetzeak alde batera, Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeek (ikus I. Sarrera) zuzentasunez bete dute 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

## II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

### II.2.1 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Bilboko Udalak BFari kostu bidez lagatuko Artigasko isurtegia modu egokian erregistratzeko, BFaren ibilgetuko eta epe luzeko periodifikazioen saldoa, hurrenez hurren, 25, eta 44,4 milioi euroan gehitu behar dira eta ibilgetuko eragiketengatiko irabazien saldoa 19,3 milioi euroan murriztu behar da (ikus A.6.2).

### II.2.2 ENPRESA SEKTORE PUBLIKOA

Higiezin merkatuak bizi duen krisi egoera aintzat hartuta, zailtasunak daude Azpiegiturak, SAUren izakinekin loturiko aktiboak gauzatzeari dagokionez, 117,8 milioi euroan balioztatuak. Berebat, zalantza dago aipatutako sozietatearen Ibilgetuko inbertsioetan 15 milioi euroan barne hartutako hainbat higiezin balorazioari dagokionez, izan ere, higiezina alokatzen zuen enpresak ez du inongo jarduerarik eta hartzekodunen konkurtsoan dago.

Epaitegi honen iritzira, II.2.1 eta II.2.2 paragrafoetan adierazitako salbuespenak salbuetsita, Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeen kontuek (ikus I. Sarrera) alderdi esanguratsu guztietan 2014ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Iritziaren atalean eraginik ez badu ere, ondotik adieraziko dugun alderdia azpimarratu nahi ditugu:

Bizkaiko Foru Aldundiak EAEn Administrazio Orokorraren bitartez desadostasunak ditu Estatuko Administrazio Orokorrarekin, 2007-2011 bosturtekorako Euskal Herriko Kupa bereizteko metodologia onartzen duen urriaren 25eko 29/2007 Legearen xedapen gehigarri hirugarrenaren aplikazioari dagokionez (hezkuntza, osasun eta mendekotasun gaietan akordioak) eta bosgarrenaren aplikazioari dagokionez (gaurkotze oinarria eta/edo adierazlea berrikustea); baita, enplegu politika aktiboen gaietan EAEn eskualdaketako aurrekontu araubidea ezartzeari dagokionez ere. Alde guzti hauen ondorio ekonomikoak ez daitezke zehaztu harik eta dagokion likidazioa egiten ez den arte (ikus A.5.1).



### **III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

Atal honek besarkatzen ditu BLHren bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### **III.1 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

##### **III.1.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA**

- BFAk doan laga dio lokal bat irabazi asmorik gabeko elkarte bati, bost urteko eperako eta 30 urtera arte luzagarri; ordea, lagapena ez da kontularitzan erregistratu. Lokala BFAk erosi zuen 2008ko urtean 1,6 milioi euroan.

##### **III.1.2 ZERGA SARRERAK**

- BFAk 43.772 zerga zor atzeratzeko baimena eman zuen 2014. ekitaldian, guztira 412,8 mila euroren zenbatekoan. Gerorapen guztietatik, 113 espediente 25 zergaduni eman zaizkie, guztira 73,2 milioi euroren zenbatekoan, % 0 eta % 4 bitarteko interes tasarekin; Bizkaiko Lurralde Historikoaren abenduaren 20ko Aurrekontu Orokorren 14/2013 Foru Arauan, ordea, 2014rako % 5eko interes tasa zegoen ezarrita. Gerorapen hauek AFAOTBren 21.2 artikuluari jarraikiz eman dira; hona zer dioen: “Ogasun eta Finantza Sailean buru denak baldintza bereziak aitortu ahal izango ditu geroratutako zerga zorren eta zuzenbide publikoko gainerakoen ginkargu eta interesei dagokienez, inguruabarrek hala egitea aholkatzen dutenean”. Badira epaiak, euren zuzenbideko oinarrietan gerorapenetan ezarri beharreko interesei dagokienez baldintza bereziak emateko aukera onartzen dutenak batetik eta bestetik, zerga zorretan berandutza interes tipo ezberdinak ezartzeko ezintasuna babesten dutenak. BFAk ez du prozedurarik finkatu AFAOn jasotako baldintza bereziak aplikatu ahal izateko.
- 2014ko ekitaldian emandako 61 gerorapen espediente aztertu ditugu, guztira 156 milioi euroren zorra egin dutenak, eta honako alderdi hauek gailendu behar ditugu:
  - Diru-bilketarako arautegiak bi hilabetez ezartzen du gerorapena emateko gehienezko epea; ordea, gainditu egin da epe hori guztira 19,5 milioi euroren zenbatekoan emandako hamar gerorapenetan.
  - Sei gerorapenetan, guztira 6,7 milioi euroan emandakoetan, gauzatzeko dago bermearen betekizunen bat: askiespena eta erregistroan izen ematea eta/edo onartzea.
  - Diru-bilketarako arautegiak hilabetez ezartzen du bermea aurkezteko gehienezko epea; ordea, 1 eta 11 hilabete bitartean gainditu da epe hori guztira 13 milioi euroren zenbatekoaren emandako 16 gerorapenetan.



### III.1.3 LANGILERIA GASTUAK

2014ko urriaren 21ean Gobernu kontseiluak BFAko eta bere erakunde autonomoetako langile funtzionario eta lan kontratupekoen lan baldintzak arautzen dituen erabakia onartu zuen, zeinak 2014rako 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren ordainketa arautzen duen, uztailaren 13ko 20/2012 LEDen bidez kendu zena, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehia sustatzeko neurriei buruzkoa. Ordainsari honen ordainketak BFari 2014an 6,8 milioi euroren gastua eragin dio eta aipatutako LEDen 2.4 artikulua urratu du, izan ere, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legeak ez du aukera hau barnehatzen. Nolanahi den ere, 2015eko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen xedapen gehigarri hamabigarrenak 2012ko aparteko ordainsariaren % 24,04a ordaintzea bideratzen du eta 2016ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 20ko 48/2015 Legearen xedapen gehigarri hamabigarrenak oraindik berreskuratu ez diren diru-zenbatekoak berreskuratzea aurreikusten du.

### III.1.4 ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

2014an 318,6 milioi euroan esleitutako 26 espediente aztertu ditugu guztira eta aurreko urteetan esleitutako beste 29 espediente, 2014n 53,9 milioi euroren egikaritzea izan dutenak. Honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu (ikus A.10):

- BFAk izapidetutako kontratazio espedienteetan, kontratugilearen profila euskarritzen duen sistema informatikoak ez du bertan jasotako informazioaren hedapen publikoa noiz hasten den modu frogagarrian egiaztatze bide emango duen baliabiderik.
- Guztira 2,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutako bi obra espedientetan, lan programa 2,5 hilabeteko atzerapenez gauzatu da (15, 19 espedienteak).
- 1,1 milioi euroan esleitutako obra zerbitzu batean harrera akta hilabeteko atzerapenez onartu da SPKLTBn aurreikusitako hilabeteko epearekiko (27. espedienteak).
- Guztira 75 milioi euroren zenbatekoan esleitutako zortzi espedientetan azken ziurtagiriak edo likidazioak SPKLTBk harrera-akta egiten denetik aurrera aurreikusten dituen 3 eta 1 hilabeteekiko 19 hilabete eta urtebete bitarteko atzeraldiarekin onesten dira; prozedurazko akats honek, baina, ez du ekintzaren baliagarritasunean eraginik izan (21, 27, 30, 33, 34, 46, 47, 54 espedienteak).

Gastuak administrazioko kontratazio espedienterik gabe aztertuta, zera azalera zaigu:

- 2014ko ekitaldian zehar hainbat ondasun eta zerbitzuren erosketa egin da, 8 jarduerari dagozkionak, guztira 320.751 euroren zenbatekoarekin, bakoitza hornitzaile bakarrarekin kontratu txikiaren moldea baliatuta kontratatua; alabaina, publikotasunik gabe eskaintzak eskatuta prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeen. Gainera, guztira 302.840 euroren gastuak atzeman ditugu, zeinaren lizitazioa aleko prezioen arabera egin litekeen, izan ere, urtero kontratatzen diren gastuak dira eta horien urteko beharra balioets daiteke (ikus A.10).





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Prokuradoreek emandako zerbitzuak, urteko 178.315 mila euroren gastua eragiten dutenak, zuzenean bi aditurekin kontratatu dira. Gastu hauek egiturazkoak dira eta duten bolumena aintzat hartuta publizitate eta lehia printzipioak beteta kontratatu behar lirateke.

### III.1.5 DIRU-LAGUNTZAK

#### Diru-laguntza izendunak (A.11.1)

- Guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan emandako lau diru-laguntzatan, emakida ebazpenak eta hitzarmen arautzaileak orokorrak dira eta ez dute ez edukia garatzen, ezta kopurua kontu-sail berariazkoetan ere (Diru-laguntzen araudiaren 50.3 art.).
- Revitalización del Bilbao Metropolitano: Metropoli-30 Elkarteari emandako 500.000 euroren diru-laguntzaren justifikazioan ez dago jasota onuradunak diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu dituenik bidaia agentzia kontratatuzeko, 77.860 euroren zenbatekoan.

#### Diru-laguntza zuzenak

2014ko ekitaldian 25,3 milioi euroren diru-laguntzak zuzenean eman dira Diru-laguntzen foru arauaren 20.2.c) artikuluan ezarritako aparteko prozedura baliatuta. Kopuru honek ez ditu ez Gizartekutxa Funttsaren laguntzak, ez BFAk enpresa sektore publikoari egindako transferentziak besarkatzen.

Komenigarria litzateke emandako diru-laguntza zuzen bakoitzaren zenbatekoa eta onuraduna Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

Hautatutako diru-laguntza zuzenen azterketatik zera ondorioztatu dugu (ikus A.11.2):

- Diru-laguntza batzuetan, duten berezitasunagatik edo antzeko proiektuetarako lehenagoko ekitaldietako emakidetan errepikatu direlako, izendun modura emateko komenigarritasuna aztertu beharko litzateke; era horretako 21 diru-laguntza eman dira guztira 10,7 milioi euroren zenbatekoan.
- Berrikuntzaren alorrean bi diru-laguntza zuzen eman zaizkie irabazi asmorik gabeko bi erakunderi 0,6 milioi euroren zenbatekoan. Gure iritzira, diru-laguntza lerroak deitu behar lirateke, jarduera hauek egin ditzaketen erakunde guztiek laguntza hauetarako irispidea izan dezaten.
- Bilbao Metropoli 30-i 461.000 euroren zenbatekoan emandako hiru diru-laguntzatan, emakida ebazpenak eta hitzarmen arautzaileak orokorrak dira eta ez dute ez edukia garatzen, ezta kopurua kontu-sail berariazkoetan ere (Diru-laguntzen araudiaren 50.3 art.).
- Joko eta Euskal Kirolen eta Arraunaren federazioek, zeinei emandako diru-laguntzak, hurrenez hurren, 78.000 eta 59.000 eurorenak diren, ez dute zinpeko aitortpena aurkeztu adieraziaz diruz lagundutako proiektuari ezargarriak zaizkion bestelako diru-sarrerarik ez



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

dagoela, xehetasunezko zerrendan berariaz jasotakoez beste, ez eta gastuen zerrendan jasotako kostu orokor eta zeharkakoak banatzeko irizpideak zeintzuk diren.

## Deialdi publiko bidez emandako diru-laguntzak

Ez da egiaztatu onuradunak diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu izana (Diru-laguntzen FAren 29.3 artikulua) 1,5 milioi euroan emandako diru-laguntzen justifikazioan, hiru foru dekretu bidez araututakoak, zeinaren indarrez guztira 7,3 milioi euroren diru-laguntzak eman diren (ikus A.11.3).

## III.2 GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA

### III.2.1 LANGILERIA GASTUAK

- 2014ko urriaren 21ean Gobernu kontseiluak BFAko eta bere erakunde autonomoetako langile funtzionario eta lan kontratupekoen lan baldintzak arautzen dituen erabakia onartu zuen, zeinak 2014rako 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren ordainketa arautzen duen, uztailaren 13ko 20/2012 LEDen bidez kendu zena, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehia sustatzeko neurriei buruzkoa. Ordainsari honen ordainketak GUFeri 2014an 1,8 milioi euroren gastua eragin dio eta aipatutako LEDen 2.4 artikulua urratu du, izan ere, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legeak ez du aukera hau barne-hatzen. Nolanahi den ere, 2015eko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen xedapen gehigarri hamabigarrenak 2012ko aparteko ordainsariaren % 24,04a ordaintzea bideratzen du eta 2016ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 20ko 48/2015 Legearen xedapen gehigarri hamabigarrenak oraindik berreskuratu ez diren diru-zenbatekoak berreskuratzea aurreikusten du.

### III.2.2 ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

Hainbat espediente hautatu eta aztertu dira ondasun erosketa eta zerbitzuenak eta kontratu txiki bidez egindako gastuenak (ikus A.12.2), eta zera ikusi dugu:

- GUFEk izapidetutako kontratazio espedienteetan, kontratugilearen profila euskarritzen duen sistema informatikoak ez du bertan jasotako informazioaren hedapen publikoa noiz hasten den modu frogagarrian egiaztatze bide emango duen baliabiderik.
- Guztira 1,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutako zerbitzuko bi kontraturen BABAk ez ditu bereizten proposamena ezin daitekeela bete balioesteko bide emango luketen mugak, eskaintza neurrigabe edo ezohikoen ondorioz (1, 3 espedienteak).
- 2014ko ekitaldian zehar hainbat ondasun eta zerbitzuren erosketa egin da, 6 jarduerari dagozkionak, guztira 244.888 euroren zenbatekoarekin, bakoitza hornitzaile bakarrarekin kontratatua eta kontratu txikiaren moldea baliatuta izapidetua; alabaina, publikotasunik gabe eskaintzak eskatuta prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeen edo aleko prezioetan lizitaziorik egin daitekeen aztertu behar litzateke, ohikotasunez kontratatzen diren gastuak direlako eta urtean zenbat beharko den balioetsi daitekeelako.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.2.3 DIRUZAINNTZA

Zentroen 24 banku kontuetako funtsak erabili ahal izateko sinadura mankomunatuak ezartzea gomendatzen dugu.

## III.3 ENPRESA SEKTORE PUBLIKOA

### III.3.1 AURREKONTUA

- Interbiak, SAren aurrekontuak ez du urteanitzeko izaeradun inbertsioen eranskina barne hartzen, Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren testu bategineko 39.2 artikulua agintzen duen legez.

2014ko abenduaren 31n Sozietateak 95,6 milioi euroren inbertsio konpromisoak ditu, nagusiki hiru obraren esleipenarekin lotuak: Amorebieta-Muxika zatia, Bermeoko saihesbidea eta Ermuko saihesbidea, Sozietateari BFAk agindu zizkionak. BFaren konpromiso kredituen aurrekontuak sozietatearen inbertsioak finantzatzeko dituzten kapital zabalkuntzetarako finantza aktiboen bariazioan kontsignazio bat barne hartzen du. 2014ko ekitaldi itxieran, BFaren Kontuak interbiak, SAren aldeko konpromiso kredituak barne hartzen ditu, 707 milioi euroren zenbatekoan.

- Bestalde, Bizkaia-Bizkaialde eta Juan Crisóstomo de Arriaga-BOS fundazioek ez dituzte BFaren sektore publikoarekin kontuak berdintzeko txostenak egiten.

### III.3.2 LANGILERIA GASTUAK

- 2014ko urriaren 21ean Gobernu kontseiluak BFAko eta bere erakunde autonomoetako langile funtzionario eta lan kontratupekoen lan baldintzak arautzen dituen erabakia onartu zuen, zeinak 2014rako 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren ordainketa arautzen duen, uztailaren 13ko 20/2012 LEDen bidez kendu zena, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehia sustatzeko neurriei buruzkoa. Ordainsari honen ordainketak enpresa erakunde publiko, merkataritzako sozietate eta foru fundazioei 2014an 2,7 milioi euroren gastua eragin die eta aipatutako LEDen 2.4 artikulua urratu du, izan ere, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legeak ez du aukera hau barnehatzen. Nolanahi den ere, 2015eko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen xedapen gehigarri hamabigarrenak 2012ko aparteko ordainsariaren % 24,04a ordaintzea bideratzen du eta 2016ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 20ko 48/2015 Legearen xedapen gehigarri hamabigarrenak oraindik berreskuratu ez diren diru-zenbatekoak berreskuratzea aurreikusten du.
- Antzinatearen kontzeptuaren arabeko ordainsariak kalkulatzeko tratamendu bereziak daudela ikusi dugu foru sozietateetan. Gomendagarria da enpresa sektore publikoari ezargarriak zaizkion ordainsariak arautu eta homogeneizatzea.

### III.3.3 KONTRATAZIOA

Hautatutako kontratazio espedienteak aztertuta (ikus A.13.2) honako hau azaleratu da:

#### Alderdi orokorrak

- BizkaiKOA, Interbiak SA, Lantik SA eta Biscaytik Fundazioan izan ezik, enpresa sektore publikoko erakundeen kontratugilearen profila euskarrizten duen sistema informatikoak ez du bertan jasotzen den informazioaren hedapen publikoa zein unetan hasten den modu frogagarrian egiaztatzen utziko duen gailu egokirik.
- Aparkabisa SA, Palacio Euskalduna SA, Garbiker SA eta Interbiak SAren kontrataziorako barne aginpideek ez dute kontratugilearen profilean publikotasuna aurreikusten 50.000 eta 200.000 euro bitarteko obra kontratuen lizitazioan eta 50.000 eta 60.000 euroren gainerako kontratuen lizitazioan, SPKLTBren 191 c) artikulua agintzen duen moduan.

#### Lantik, S.A.

Hauteskunde emaitzak jaso eta eskualdatzeko espedientearen -756.250 euroan esleitu zena eta aseguruaren kontratazioan bitartekotza eta aholkularitza espedientearen -197.973 euroan esleitu zena- pleguetan ezarritako esleipen irizpideek hobekuntzen atal bat barne hartzen dute eta bigarrenak, baita metodologiari buruzko bat ere, zein alderdi balioztatzen diren zehaztu gabe (23, 24 espedienteak).

#### Juan Crisóstomo de Arriaga-BOS Fundazioa

Fundazioaren Oroitidazkiak ez du ekitaldian urteko fakturazio esanguratsua duten hornitzaile eta hartzekodunei buruzko informaziorik jasotzen. Gertakari honek berebiziko garrantzia hartzen du arrazoi artistikoak tarteko publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratuak egin direlako, kontratugilearen profilean argitaratzen ez direnak. Gomendagarria litzateke informazio hau jasotzea, Enpresa Sektore Publikoko gainerako erakundeen Oroitidazkietan egiten den moduan.

#### Administrazio kontrataziorik gabeko gastua

Ondotik zehaztutako gastuak homogeneousak, aurreikusgarriak eta bakoitza hornitzaile batekin kontrataturikoak dira; honenbestez, ondoko erakundeek lehia printzipioa baliatu behar lukete kontratazioan:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

		Euroak milakotan (BEZa barne)
ERAKUNDEA	XEDEA	ZENBATEKOA
BizkaikOA	Bisita gidatuak.....	75
	Erakusketen muntaia.....	47
	Publizitatea .....	44
	Artelaren garraioa .....	40
	Alarma eta suteen sistemak.....	34
	Omako Basoa zaharberritzea.....	26
	Erakusketetarako inprenta zerbitzuak (2 hirugarren).....	46
	Bizkaiko Basalan, S.A.	Langileak hautatzeko zerbitzuak .....
BiscayTIK Fundazioa	Telefono-zerbitzua .....	56
	Aholkularitza juridikoak.....	79

### III.3.4 DIRU-LAGUNTZAK

Bizkaia-Bizkaialde Fundazioak 2014ko ekitaldian Bizkaiko kirol taldeei diru-emate batzuk egiteko deialdia deitu du, ekipoak kategoria gorenetan izan ditzaten; aurrekontua 999.967 eurorena da, lurralde historikoko 27 kirol erakunderen artean banatzen dena. Hori aztertuta, honako huts hauek azaleratu zaizkigu:

- Deialdiak ez ditu club mistoentzako laguntzak barne hartzen eta Patronatuak club hauei 55.732 euroren zenbatekoan hiru laguntza ematea erabaki zuen; honenbestez, komenigarria litzateke hurrengo deialdietan horiek onuradun modura barne hartzea.
- Patronatuak nahikotzat jotzen du diru-laguntza guztiaren % 85 baino gehiago justifikatzea; ordea, oinarri arauen arabera osorik justifikatu behar da laguntza.

### III.3.5 HORNITZAILEEI ORDAINKETA EPEAK

Uztailaren 5eko 15/2010 Legeak abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen du, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen; Lege horrek Xedapen gehigarri hirugarrenean agintzen du sozietateek berariaz argitaratu beharko dutela haien urteko kontuen Txostenean hornitzaileei ordainketak egiteko epeei buruzko informazioa.

Hona hemen aipatutako Legean jasotako legezko epea gainditu duten foru merkataritza sozietateak eta foru fundazioak, batez bestean gainditutako epe eta zenbatekoarekin:

ERAKUNDEA	GAINDITUTAKO EPEA Euroak milakotan	
	EGUNAK	ZENBATEKOA
Aparkabisa, S.A.....	49	1.842
Basalan, S.A.....	30	114
Lantik, S.A. ....	46	410
Zugaztel, S.A.....	6	157

Bizkaia-Bizkaialde Fundazioak ez du urteko kontuen Oroitidazkian hornitzaileei ordaintzeko behar izaten duen epearen gaineko informaziorik ematen. Dena dela, HKEEK egindako azterketak ez du aipatutako Legeak zehazten dituen epeak gaindituz egindako ordainketarik atzeman.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV. FINANTZA ANALISIA

### IV.1 BFAREN DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA

BFAk 2013 eta 2014ko ekitaldietan kitatutako magnitude nagusiak honako hauek dira:

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Euroak milakotan		
	2013	2014	BARIAZIOA 2014/2013
<b>Sarrera arruntak</b>	<b>6.564.455</b>	<b>6.809.291</b>	<b>% 3,7</b>
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak .....	6.285.820	6.556.776	
Tasak eta bestelako sarrerak .....	245.574	216.770	
Transferentzia arruntak .....	25.311	27.703	
Ondare sarrerak .....	7.750	8.042	
<b>Erakundearteko konpromisoak</b>	<b>(5.086.710)</b>	<b>(5.317.835)</b>	<b>% 4,5</b>
(Estatuari kupoa).....	(359.476)	(321.910)	
(EJri ekarpena) .....	(3.985.249)	(4.230.048)	
(Udalei ekarpena).....	(741.985)	(765.877)	
<b>Sarrera arrunt garbiak</b>	<b>1.477.745</b>	<b>1.491.456</b>	<b>% 0,9</b>
<b>Gastu arruntak</b>	<b>(974.915)</b>	<b>(1.005.448)</b>	<b>% 3,1</b>
(Langile gastuak).....	(178.954)	(187.983)	
(Ondasun arruntan erosketa eta zerbitzuak).....	(353.827)	(364.307)	
(Finantza gastuak).....	(47.142)	(47.654)	
(Transferentzia arruntak).....	(394.992)	(405.504)	
<b>ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)</b>	<b>502.830</b>	<b>486.008</b>	<b>% (3,3)</b>
<b>KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA (2)</b>	<b>(217.559)</b>	<b>(178.167)</b>	
Egiazko inbertsioen besterentzea .....	233	519	
Kapitalezko transferentziek eragindako sarrerak.....	20.765	12.788	
(Inbertsio errealetan gastuak).....	(104.025)	(70.878)	
(Kapital transferentziek eragindako gastuak).....	(134.532)	(120.596)	
<b>FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA (3)</b>	<b>(55.616)</b>	<b>(120.112)</b>	
Finantza aktiboen bariazio garbia.....	(82.422)	(120.046)	
Finantza pasiboen bariazio garbia .....	26.806	(66)	
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (1+2+3)</b>	<b>229.655</b>	<b>187.729</b>	
<b>EKITALDI ITXIEN EMAITZA (4)</b>	<b>(134.089)</b>	<b>(135.072)</b>	
<b>HORNIDUREN BARIAZIOA (5)</b>	<b>(118.426)</b>	<b>(48.132)</b>	
<b>BESTELAKO DOIKETAK (6)</b>	<b>10.747</b>	<b>20.323</b>	
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3+4+5+6)</b>	<b>(12.113)</b>	<b>24.848</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA

2014an kitatutako eragiketa arrunten emaitza 16,8 milioi euro murriztu da 2013an kitatutakoarekiko eta horrek % 3,3ko murrizketa egiten du. Emaitza hau 22 milioi inguru murriztuko zatekeen 2013ko ekitaldiari zegozkion Sozietateen Zergaren 2014ko aitopenagatiko itzulketak 2014an egin izan balira, aurreko ekitaldietan egin ohi zen moduan, eta ez 2015eko urtarrilean, legez baimendutako gehienezko epea baliaturik.

2014ko kitapenean 2013ko ekitaldiarekiko bariazio esanguratsuenak honako hauek dira:

- 2014ko ekitaldian zerga zuzen eta zeharkakoen kontzeptuan kitatutako eskubideak 271 milioi euro gehitu dira; ordea, tasa eta bestelako sarrerei dagozkienek 28,8 milioi egin dute behera.
- Erakunde konpromisoek eragindako gastua 231,1 milioi euroan gehitu da (% 4,5), itunpeko zergen diru-bilketa % 4,2 igo delako, 2013an 6.220,3 milioi euroena izatetik 2014an 6.483,7 milioi euroena izatera aldatu dena. 2013an erakunde konpromisoen gastuak itunpeko zergen diru-bilketaren % 81,8 egin zuen; 2014an, berriz, ehunekoa % 82koa izan da.
- Gastu arruntak 30,5 milioi euro igo dira (% 3,1). Bariazio honetan azpimarratzekoa da langile gastuetan izandako 9 milioi euroren igoera (% 5), 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren ordainketagatik eta 2014ko ekitaldi osoan zehar Elkarkidetzara egindako kotizazioengatik. Gainerako kapituluetan, bariazioaren ehunekoa ez da esanguratsua.

## KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA

Emaitza negatiboak 39,4 milioi euro egin du behera, nagusiki Inbertsio errealek behera egin izanaren ondorioz, 2013an 104 milioi euro izatetik 2014an 70,9 milioi izatera aldatu dena; azpimarratzekoa da “Errepideak, bideak eta pistak” kontzeptuak izan duen 37 milioi euroren murrizketa.

## FINANTZA ERAGIKETEN SALDOA

2014ko ekitaldiko finantzaketa eragiketen saldo negatiboa 64,5 milioi euro gehitu da aurreko ekitaldiarekiko, Interbiak SAN kapital zabalkuntza handiagoa egin izanaren ondorioz eta 2014an aurrekontuaren zorpetzeari eutsi zaiolako.

## DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA

Doitutako aurrekontu emaitzak, 2014an 24,8 milioi euroena izan denak, 36,9 milioi euroan gainditu du aurreko ekitaldikoa, 12,1 milioi euroan negatiboa zena. Hona hemen bariazio esanguratsuenak:

- Ekitaldiaren emaitza 41,9 milioi euroan jaitsi da.
- 2014an kaudimen-gabeziatarako eta erakunde konpromisoetarako zuzkiduraren bariazioa 2013koa baino 70,3 milioi euro txikiagoa izan da.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV.2 DIRUZAINZA GELDIKIN GARBI LIKIDO ERABILGARRIA

BLHren Aurrekontuko Araudi Orokorra onartzen duen abenduaren 16ko 169/2014 FDK, AFAOTB garatzen duenak, diruzaintza geldikin garbi likido eskuragarriaren kontzeptua sartzan du, pilatutako emaitzatik bereizten dena kobratzeko dauden eskubideen diru-bilketaren aldizkakotzeagatik. Hau da, hurren-hurrengo ekitaldian geldikinetik likido bihur daitekeen zatia balioesten da.

	Euroak milakotan	
	2013	2014
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDO ERABILGARRIA	44.577	60.818

## IV.3 AURREKONTUEN KONTABILITATEARI MENERATZEN EZ ZAIZKION ERAKUNDEEN ALDERDI FINANTZARIOAK

### Epe luzeko finantzaketa

- BFAk 104,5 milioi euro jarri ditu Enpresa Sektore Publikoaren funts propioetan 2014an eta horietatik 91,1 milioi kapitalaren zabalkuntzak dira eta 13,4 milioi euro galerak berdintzeko ekarpenak. Kopuru honek 2014ko urtarrilaren 1ean hasierako saldoaren % 15,8 egiten du, guztira 659,9 milioi euro.
- Enpresa Sektore Publikoak BFAtik jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak 11 milioi eurorenak izan dira.
- Zorpetzea 16 milioi euro murriztu da (% 1,6) eta 2013an 1.020,2 milioi euroena izatetik 2014an 1.004,2 milioi euroena izatera pasa da; hortik % 92,4 Interbiak, SARI dagokio. Kopuru honetatik Egoeraren Balantzeetan epe luzera erregistratutako zenbatekoak 963,8 mila euro egin ditu.

### Epe laburreko finantzaketa

Epe laburreko finantzaketa (aktibo arrunta-pasibo arrunta) zentzuzkoa da enpresa sektore publikoko erakunde guztiei dagokienez, bi salbuespenekin:

- Aparkabisa, SA: 2014an aktibo arrunta pasibo arrunta baino txikiagoa da 4,6 milioi euroren zenbatekoan (4,9 milioi euro 2013an). Azken ekitaldietan gertatu den egoera hau epe laburreko kreditu kontu baten urteko berritzearekin lotua dago, 2014ko ekitaldi itxieran 2,1 milioi euroren saldoa zuena eta 2015erako berri dena; horrek erakusten du ez dituela diruzaintzako uneko beharrak sortu.
- Azpiegiturak SAU: Nahiz aktibo arruntak pasibo arrunta 97,9 milioi euroan gaintitzen duen, gogoan izan behar da epe laburrean izakinak gauzatzeari buruz dagoen zalantza, 117,8 milioi euroan balioztatuak daudenak.





## Inbertsioak

2014ko ekitaldiko ibilgetuko altak 65,8 milioi eurorenak dira eta horietatik % 79,6 Interbiak, SAk egindako azpiegituretako inbertsioak dira. 2014ko ekitaldian inbertsioak 2013ko ekitaldian baino handiagoak dira eta aurreko ekitaldietan baino txikiagoak.

## Ekitaldiaren emaitza

Enpresa Sektore Publikoak guztira 89,6 milioi euroren galera garbiak izan ditu eta horietatik 7,8 milioi euro Azpiegiturek, SAUri dagozkio, 8,8 milioi euro Garbiker, SAri eta 57,8 milioi euro Interbiak, SAri.

- 2014ko ekitaldian Enpresa Sektore Publikoaren ustiapen-sarrerak 237,6 milioi eurorenak izan dira eta horietatik % 54,7, 130 milioi euro, atxikitako erakundeei emandako zerbitzuei dagozkie, BFari nagusiki. Duten gizarte zerbitzuko jardueragatik Basalan S.A., Lantik S.A., Zugaztel S.A., Azpiegiturek SAU eta foru fundazioak guztiz BFaren baitako dira ustiapen diru-sarrerak eskuratzeko.
- Sozietate gehienetan ekitaldiaren emaitzak ez du alde esanguratsurik ustiapen emaitzarekin. Hona hemen zein sozietatetan den emaitza finantzarioa adierazgarria:

ERAKUNDEA	Euroak milakotan		
	USTIAPEN EMAITZA	EMAITZA FINANTZARIOA	EKITALDIAREN EMAITZA
Aparkabisa SA.....	(2.345)	(208)	(2.553)
Azpiegiturek SAU.....	(4.384)	(3.383)	(7.767)
Interbiak SA.....	(11.593)	(46.233)	(57.826)
Euskalduna Jauregia SA.....	(1.528)	242	(1.286)

## IV.4 FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

Hona hemen foru sektore publikoaren zorpetzeak izan duen bilakaera:

	Euroak milakotan	
	2013	2014
BFA-ren aurrekontuko zorpetzea.....	1.207.811	1.207.745
Merkataritzako foru sozietateen zorpetzea.....	1.020.229	1.004.215
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.228.040</b>	<b>2.211.960</b>

## IV.5 ONDORIOA

AEFILOk 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, aurrekontuan oreka edo egiturazko superabit egoera modura ulertzen direnak eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan.



Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Artekaritza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzairen eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

2014ko diru-bilketak behar hainbateko baliabideak eskaintzen ditu aurreko ekitaldietako kopuru berean egiazko inbertsioak finantzatzeko.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

#### A) 2014-KO AURREKONTU ARRUNTAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREIKUSPENA			ESKUBIDE KITAT.	DIRU-BIL. LIKIDOA	KOBRA. GABEA
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.			
1.- Zerga zuzenak .....	A.7	3.269.491	41.400	3.310.891	3.223.501	3.119.796	103.705
2.- Zeharkako zergak .....	A.7	3.283.689	-	3.283.689	3.333.275	3.009.554	323.721
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.7	143.476	2.034	145.510	216.770	124.720	92.050
4.- Transferentzia arruntak .....	A.8	58.254	4.642	62.896	157.515	113.827	43.688
5.- Ondare sarrerak .....		7.221	322	7.543	8.042	8.005	37
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....		500	-	500	519	519	-
7.- Kapitalezko transferentziak .....	A.8	8.140	230	8.370	12.788	12.527	261
8.- Finantza aktiboen aldak. ....	A.9	750	32.170	32.920	730	730	-
9.- Finantza pasiboen aldak. ....		147.666	-	147.666	147.600	147.600	-
<b>GUZTIRA</b>		<b>6.919.187</b>	<b>80.798</b>	<b>6.999.985</b>	<b>7.100.740</b>	<b>6.537.278</b>	<b>563.462</b>

GASTUAK	ERANSK.	AURREIKUSPENA			OBLIG. KITAT.	ORDAIN. LIKIDOA	ORDAIN. GABEA
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.			
1.- Langileen ordainsariak .....	A.3	188.647	6.780	195.427	187.983	185.043	2.940
2.- Gastu arruntak: .....	A.4	376.876	(2.329)	374.547	364.307	300.128	64.179
3.- Finantza gastuak .....		78.586	(6.000)	72.586	47.654	47.654	-
4.- Transferentzia arruntak .....	A.5	5.811.946	51.870	5.863.816	5.853.151	5.813.349	39.802
5.- Ordainketa osoaren kreditu funtsa ..		480	6.071	6.551	-	-	-
6.- Inber. errealak .....	A.6	82.274	(3.938)	78.336	70.878	51.147	19.731
7.- Kapitalezko transferentziak .....	A.5	127.713	12.567	140.280	120.596	87.699	32.897
8.- Finantza aktiboen aldak. ....	A.9	104.999	15.777	120.776	120.776	115.080	5.696
9.- Finantza pasiboen aldak. ....		147.666	-	147.666	147.666	147.666	-
<b>GUZTIRA</b>		<b>6.919.187</b>	<b>80.798</b>	<b>6.999.985</b>	<b>6.913.011</b>	<b>6.747.766</b>	<b>165.245</b>

#### B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2014

Euroak milakotan

	HASIERAKO	KITATUTAKO	(KOBRA.)	AZKEN	EMAITZA/
	ZORRA	ESKUBIDE/OBLIG.	ORDAINK.	ZORRA	BAJAK
Zordunak .....	1.895.287	1.760.214	(333.899)	1.426.315	(135.073)
Hartzekodunak .....	(152.133)	(152.132)	152.132	-	1
					<b>(135.072)</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

C. 2014-KO DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	7.100.740
- Kitatutako obligazioak.....	(6.913.011)
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (1)</b>	<b>187.729</b>
Ekitaldi itxien bariazioa.....	(135.072)
<b>EKITALDI ITXIEN BARIAZIOA (2)</b>	<b>(135.072)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA (1+2)</b>	<b>52.657</b>
(Finantzaren doiketa).....	10.279
Itunpeko zergen kobrantzaren doiketa.....	(58.411)
Udalkutxa Ustekabekoak gehitzeagatik doiketa.....	(1.899)
BEIren maileguaren doiketa eraginpeko finantzaketagatik.....	8.295
Zamudioko Teknologia Parkea, SAREN kapital zabalkuntzaren doiketa: finantzaketa lotua.....	4.000
2012ko abenduko aparteko ordainsariaren doiketa.....	6.823
Hidrokarburoen gaineko zerga, erkidegoko zatiaren doiketa.....	3.104
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA 2014</b>	<b>24.848</b>

D. METATUTAKO EMAITZA 2014.12.31-N	Euroak milakotan
2013ko ekitaldiaren emaitza bategina.....	118.574
2014ko ekitaldiaren emaitza.....	24.848
<b>2014-KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA</b>	<b>143.422</b>

E. 2014-KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA	Euroak milakotan
Kobratzeko dauden eskubideak.....	1.989.777
-Ordaintzeke dauden obligazioak.....	(165.245)
(Finantzaren doiketa).....	(1.275.748)
Itunpeko zergen kobrantzaren doiketa.....	(540.216)
Bestelako doiketak.....	(14.976)
Diruzaintza.....	149.830
<b>EMAITZA BATEGINA</b>	<b>143.422</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

F. DIRUZAINZTA GELDIKINA 2014.12.31-N		Euroak milakotan
	Eransk.	2014.12.31
Aurrekontuko diruzaintzako funts likidoak .....		149.830
Kobratzeko dauden saldoak.....		1.989.777
Ordaintzeko dauden saldoak .....		(165.245)
<b>DIRUZAINZTA GELDIKIN GORDINA</b>		<b>1.974.362</b>
Finantzaren doiketa .....	A.7	(1.275.748)
Itunpeko zergen kontzeptuko doiketa .....	A.7	(540.216)
<b>DIRUZAINZTA GELDIKIN GARBIA</b>		<b>158.398</b>
Diru-bilketaren aldizkakotzea.....		(420.853)
Itunpeko zergen gehiegizko doiketa .....		338.249
<b>DIRUZAINZTA GELDIKIN GARBI LIKIDOA</b>		<b>75.794</b>
Atxikitako finantzaketa soberakina .....		(7.763)
Aurrekontuko Foru Araua gehitzea .....		(7.213)
<b>DIRUZAINZTA GELDIKIN GARBI LIKIDO ERABILGARRIA</b>		<b>60.818</b>

G. DIRUZAINZTA KONTUA 2014.12.31-N		Euroak milakotan
Aurrekontuko diruzaintza 13.12.31n .....		178.551
Aurrekontu kobrantzak.....		9.681.952
-Aurrekontuko ordainketak.....		(9.710.673)
Aurrekontuko diruzaintza 14.12.31n (A).....		149.830
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 13.12.31n.....		374.778
Aurrekontuz kanpoko kobrantzak.....		10.162.846
-Aurrekontuz kanpoko ordainketak .....		(10.211.112)
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 14.12.31n (B).....		326.512
<b>DIRUZAINZTA ERABILGARRIA GUZTIRA (A+B).....</b>		<b>476.342</b>
<b>DIRUZAINZTA EZ ESKURAGAR. FINANTZEN EUROPAKO BANKUAN ....</b>		<b>580</b>

H. ZORRAREN EGOERA		Euroak milakotan
<b>AURREKONTUAREN ZORPETZEA 2014.12.31-N</b>		<b>1.207.745</b>
<b>2014.12.31-N EMANDAKO ABALAK</b>		<b>245.760</b>



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

F. GEROKO EKITALDIEN KONTURA HARTUTAKO GASTU KONPROMISOAK Euroak milakotan

Saila	2015	2016	2017	2018	Gainer.	Guztira Saila
<b>Nekazaritza</b>						
Baimendua .....	8.449	1.602	-	-	-	10.051
Erabilia.....	6.561	582	-	-	-	7.143
<b>Gizarte Ekintza</b>						
Baimendua .....	207.683	116.123	42.994	39.330	678.765	1.084.895
Erabilia.....	5.226	2.887	196	193	-	8.502
<b>Kultura</b>						
Baimendua .....	7.094	491	104	100	-	7.789
Erabilia.....	6.098	127	104	100	-	6.429
Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea aplikatu behar da. Horren 22. artikuluan, hauxe ere aintzatesten du: **Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, gobernu-organoei langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera.**



Era berean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/207 Legearen 69. artikuluan, beren giza baliabideak antolatzeko planak onesteko ahalmena aintzatesten die herri administrazioei.

Hortaz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Planak eta horren ondoriozko urriaren 21eko 152/2008 Foru Dekretuaren bidez, azaldutako marko juridikoaren baitan hauexek biltzen dituzte: **Bizkaiko Foru Aldundiaren giza baliabideak arrazionalizatzeko zenbait neurri.**

Neurri horien artean, bere zerbitzuko langileriaren erretiroari buruzko neurriak daude, baina, gaur egun, neurri horiek garatzen jarraitu beharra dago, baita zerbitzu aktiboaren luzapenerako muga Giza Baliabideen Plan Estrategikoan sartu ere, halako moldez non, oro har, funtzionarioen eta lan-itunpeko langileen nahitaezko erretiroa ohiko adinean ezarriko baita Gizarte Segurantzaren araubidearen edo kasuan kasuko mutualitatearen arabera.

Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoak jarraituriko ildoan kokatzen da; izan ere, 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 20ko 4/2013 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian, muga hori bildu da bere zerbitzuko funtzionarioentzat.”

Horrenbestez, Langileen Estatutuko 51. artikuluan xedatutakoa Herri Administrazioan ezarritako egokitzapena da, hari datxezkion araudiarekin bat etorritz. Ekoizpeneko bitartekoetan edo tresnetan, laneko sistemetan eta metodoetan izandako aldaketak eta ekoizpena antolatzeko moduak aipatzen dira zuzenean. Administrazioan, plantillei eta lanpostuen zerrendei dagokie, eta hori arrazionalizatzeko onetsi zen hain zuzen ere Giza Baliabideen Plana.

Herri administrazioetako giza baliabideen plan estrategikoak, haien araudia ikusita, administrazioak bere beharretarako baliabideak arrazionalizatzeko eta egokitzeko programak direla esan daiteke, beren burua antolatzeko ahalmen espezifikoarekin bat etorrira eta aurretik langileriaren ordezkariarekin negoziatuta. Programa horietan, enplegu planak aplikatzeko araudi orokorrean ezarritako neurriez gain, borondatezko eszedentziarako, aurreratutako erretirorako, zerbitzu aktiboari uko egiteko edo zerbitzuan behin betiko baja hartzeko pizgarriak sar daitezke.

Bestalde, enpresa pribatuaren eta lan-zuzenbidearen eremuan, lana erregulatzeko espedienteak irazpen kolektiboak egiteko administrazio prozedurak dira, irazpen horiek beharrezkoak baldin badira enpresaren egoera ekonomiko txarra gainditzeko saiartzeko (kausa ekonomikoak baldin badira) edo enpresaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko, bere giza baliabideak modu egokiagoan antolatuz (kausa teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak badira).

Horregatik, herri administrazioei datxezkien giza baliabideen plan estrategikoen eta lan-zuzenbideari datxezkion enplegu-erregulazioko espedienteen artean dauden antzekotasunak ikusita (bereziki kontuan hartuta biak bideratzen direla enplegatzailerak giza baliabideak beren antolamenduko behar objektiboetara egokitzeko eta arrazionalizatzeko), antzeko tratamendua ematen die PFEZFAk kontzeptu batean edo bestean jasotako pizgarriei eta kalte-ordainei, 9.5. artikuluan araupeturiko salbuespenaren ondorioetarako, eta sail eskudunak jakinarazita duenez plan estrategiko horien kasuan, antolamenduaren arloko

kausak dira oinarria, Aldundiaren plantilla arrazionalizatzeko eta berregokitzeko, betiere Aldundian enpleguaren geroko bideragarritasuna bermatze aldera bere giza baliabideak egokiago antolatuz. Horrexegatik dago salbuetsita enplegatuek jasotako kalte-ordainaren zatia, baldin eta Langileen Estatutuan bidegabeko irazpenerako ezarritako nahitaezko mugak gainditzen ez badira betiere.

#### Hauxe dio L Eren 51. artikulua:

“1/1995 Errege Dekretu Legegilea, martxoaren 24koa, Langileen Estatutuari buruzko testu bategina onartzen duena (indarrean 2015eko azaroaren 13ra arte).

1. “Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kaleratze kolektibo esango zaio ekonomia, teknika, antolaketa edo ekoizpeneko arrazoietan oinarrituta kontratuak amaitzeari, laurogeita hamar eguneko epean amaitzeak honako hauengan badu eragina:

- a) Ehun langiletik beherako enpresetan, hamar langilerengan.
- b) Ehun eta hirurehun langile arteko enpresetan, langileen %10engan.
- c) Hirurehun langile baino gehiago dituzten enpresetan, hogeita hamar langilerengan.

Kausa ekonomikoak tartean direla joko da baldin eta enpresaren emaitzak ikusita agerikoa bada egoera ekonomiko negatiboa duela enpresak; adibidez, gaur egun galerak izatea edo gerorako galerak aurreikustea, edo diru-sarrerak nahiz salmentak luzaroan gutxituz joatea. Nolanahi ere, murrizpena iraunkortzat joko da hiru hiruhilekotan jarraian salmentak edo sarrera arruntak aurreko urteko hiruhileko berdinetan baino gutxiago badira.

Kausa teknikoak tartean direla joko da baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, ekoizteko bitarteko edo tresnen alorrean. Antolaketako kausak izango dira baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, langileen lan-sistemetan edo ekoizpena antolatzeko lan-moduetan. Eta ekoizpeneko kausak izango dira baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, enpresak merkatuan sartu nahi dituen produktuen edo zerbitzuen eskarian.

.../....”

2. *GUF*Ek eskuraketak, hornidurak eta zerbitzuak egin ditu, guztira 949.898 euro, prozedura irekia baztertuta (ikusita A.12.2.).

## GURE-REN ALEGAZIOA

Banakako kontratazioa eta operatiba dituzten hogeita hamar zentro logistikotan egin dira horniduren eta zerbitzuen eskuraketak; funtzionamendu autonomoko zentroak dira, eta banakako berezitasun espezifikoak ditu zentro bakoitzak emandako zerbitzuari, erabiltzaile kopuruari, kokapenari, eta abarri dagokienez.

Alabaina, 2016ko ekitaldian lizitazioa prozedura irekiaren eta kontratazio zentralizatuaren bidez egiteko lana gauzatzen ari da.



### II.1.3 ENPRESA SEKTORE PUBLIKOA

1. Bizkaia-Bizkaialde Fundazioak jarduerak dinamizatzeko, baliabideak biltzeko eta administrazio-atazak egiteko zerbitzuak kontratatu ditu 2015erako, guztira 120.274 euro, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, SPKLTBren 191.c) artikulua bete barik (ikus A.13.2).

#### BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOAREN ALEGAZIOA

Bizkaia Bizkaialde Fundazioak baliabideak dinamizatzeko eta administrazio-atazak egiteko zerbitzuak kontratatu ditu, guztira 120.274 euroan, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez (hiru eskaintza eskatuta), Fundazioaren kontratazioari buruzko jarraibideetan ezarritakoaren arabera, hots, kontratazioa argitaratuta baina publizitate printzipioa aplikatu barik.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioko Patronatuaren 2015eko ekainaren 3ko batzarrean, Fundazioaren kontratazio jarraibideak aldatzea erabaki zen, hain zuzen SPKLTBren 191.C) artikuluan xedaturikora egokitzeari begira. Hartara, Fundazioaren web orriko kontratugilearen profilean argitaratu dira lizitazioa eta kontratuaren adjudikazioa.

2. Hona hemen publizitate eta lehia printzipioen arabera argindarraren eta/edo gas naturala ren hornidura kontratatu ez duten foruko merkataritza sozietateak eta foru fundazioak:

		Mila eurotan
ERAKUNDEA		ZENBATEKOA
<b>ARGINDARRAREN HORNIDURA</b>		
Garbiker, S.A. ....		100

#### GARBIKER-EN ALEGAZIOA

Garbiker-ek kontratazio BEREIZITZAT jotzen ditu ondorengo hornitzaileei eginikoak; urteko fakturazioak (BEZa BARNE) eta IFZ ondorengo zehaztuko dira:

IFZ	IZENA	ZENBAT. 2014 (BEZa barne)
A95075586	IBERDROLA GENERACION SAU	58.893,06 euroak
A95758389	IBERDROLA CLIENTES SAU	41.661,40 euroak
A95554630	IBERDROLA COM. ULTIMO RECURSO S.A.	11.112,07 euroak

IFZ desberdinak dira eta negozioak ere bai. Bestalde, kontratu berezia duen zenbakiko instalazio berezi bakoitzean ematen dira. Horrela, ez da mugarik gaitzen aipaturiko printzipioen aldetik. Inguruabar horrek ez dakar aldaketarik aurreko ekitaldiekiko, eta ekitaldi horietako batean ere ez da egoera hori bildu.



### **III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK**

#### **III.1 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

##### **III.1.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA**

- *BFAk doan laga dio lokal bat irabazteko asmorik gabeko elkarte bati bost urterako, gehienez 30 urtera luza daitekeena, baina kontabilitatean ez da erregistratu aipaturiko lagapena. BFAk eskuratu zuen lokala 2008an, guztira 1,6 milioi euroan.*

#### **OGASUN ETA FINANTZA SAILA**

Lagatako lokalaren balioa 1.642.998,66 euroak izan zen, horrela banakatuta: lurra, 792.089,65 euroak eta 850.909.01 euroak, hegalkina. Hegalkinaren balioari dagokion aktibo finkoa 2014ko abenduaren 31n deskapitalizatu zen eta, beraz, ez zegoen 2014ko ekitaldia bukatzean. Horregatik, kontabilitatean islatu da lagapena. Altan mantenduko da lurraren balioari dagokion aktibo finkoa, guztira 792.089,65 euroak-an, zeren eta soilik lokala lagatzen dela ulertzen baita.

##### **III.1.3 LANGILERIA-GASTUAK**

*Gobernu Kontseiluak, 2014ko urriaren 21ean, BFAko eta bere erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-itunpeko enplegatuen baldintzak arautzeko erabakia onetsi zuen, eta horren xedapenen artean, 2014. urterako, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 1 20/2012 EDk baliogabetu zuen 2012ko abendurako aparteko ordainsariaren ordainketa arautzen du. Aparteko ordainsari hori ordaintzeko, 2,7 milioi euro erabili dituzte enpresa erakunde publikoek, merkataritza sozietateek eta foru fundazioek, baina ordainketa horrek ez du betetzen aipaturiko ED-1 horren 2.4. artikulua, zeren eta Estatuko 2014ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legeak ez baitakar posibilitate hori. Alabaina, Estatuko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abendaren 26ko 36/2014 Legearen hamargarren Xedapen Gehigarriak ahalbidetu egiten du 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren %24,04 ordaintzea, eta Estatuko 2016rako Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 20ko 48/2015 Legearen hamaikagarren Xedapen Gehigarriak oraindik berreskuratu ez diren kopuruak ordaintzea aurreikusten du.*

#### **LEHENDAKARITZA SAILAREN ALEGAZIOAK**

2014ko aparteko ordainsaria ordaintzea ez doa ezein aurrekontu-araudiren kontra, hain zuzen BFAko eta bere erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-itunpeko langilieriaren lan baldintzak arautzeko 2014ko urriaren 21eko Gobernu Batzordean hartutako erabakian bilduta baitago, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 ED-1aren bidez kendu zen 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ordaintzeko aurreikuspena dela bide. Horrez gain, ez da



zuzena esatea Estatuaren 2014rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legeak ez dakarrela posibilitate hori.

Bidezkoa da ondorio hori ateratzea espedientearen barruko txostenetan ezarritakoagatik; izan ere laburpen gisa, hauxe zehazten zen: 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kentzeari buruzko ekarpen korrelatiboak 2014. urtearen barruan gauzatu behar zirela, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-iraunkortasunerako beharkizunak betetzen zirela ulertzen bazen, ez baitzegoen beste betebeharririk edo baldintzarik ordainsaria geldiarazteko. Neurri horrek hobeturiko eta finkaturiko eskubideetan zuen eragina, zeren eta betetako baldintza baten menpe baitzegoen ordainsaria ordaintzea (20/2012 LEDren 2.4. artikulua), aipaturiko espedienteko txosten guztiek adierazten zuten legez.

Aldi berean, egiaztatu egin zen kreditua sartzeak eta 2014an ordaintzeak bete egiten zuela Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan bildutakoa.

Horregatik, ez zuen oinarri juridikorik Foru Erakundeak diru-ekarpen hori atxikitzea.

Hori dela eta, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren baldintza bete zela berretsita, ekarpenak 2014ko ekitaldian gauzatzea erabat bidezkoa zen legen aldetik, 20/2012 LEDren 2.4. artikuluan ezarri ziren baldintzekin bat etorrira betiere.

Horrenbestez, esan beharra dago ordainsaria aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 LEDren bidez kentzeko zenbait beharkizun ezarri zituela ordainsaria ordaintzeko, eta beharkizun horiek bete egin zituen Bizkaiko Foru Aldundiak 2014ko ekitaldian. Horregatik, ordainketak bete egin duen araudia; araudiari lotzen zaio erabat.

### **III.1.4 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA**

*2014an adjudikaturiko 26 espediente aztertuta, guztira 318,6 milioi eurokoak, baita aurreko urteetan adjudikaturiko 29 espediente ere (horien betearazpenak 53,9 milioi euro izan ditu 2014an), hauxe ikusi dugu (ikus A.10):*

- BFAk eta erakunde autonomoek izapidetutako kontratazio espedienteetan, kontratugilearen profilari eusten dion sistema informatikoak ez dauka tresna egokirik bertan dagoen informazioa jende artean zein unetan hasi den zabaltzen modu frogagarrian egiaztatu ahal izateko.

### **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA**

Egun daukagun sistemak espediente jakin baten izapidearen berri jaso duten hartzaileak eta jakinarazpenaren data adierazten dituen egiaztapen-mezu elektronikoak bidaltzen ditu.

Jendaurrean hedatzen hasteari dagokionez, profilean espedienteak argitaratzeko prozesuak informazio-emaileak bidaltzen dizkie informazio honetara harpidetuta dauden erabiltzaile guztiei.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2016ko urtarrilean, sistema informatiko bat ezartzen hasi da, zertarako-eta, kanpoko erakunde baten bitartez (izenpe), modu sinesgarrian egiaztatzeko kontratugilearen profileen bilduko den informazioa ezagutarazten hasteko unea. Sistema horri esker, kontratugilearen profiletik bertatik egiazta daiteke informazioa ez dela aldatu ezein bitarteko erabiliz. Sistema hori 2016ko espediente guztietarako dago eskuragarri.

- *Guztira 2,2 milioi euroan adjudikaturiko bi obra-espedientetan, 2,5 hilabeteko atzerapenarekin gauzatu da lan-programa (15, 19 espedienteak).*

## HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU SAILAREN ALEGAZIOA

Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 63. artikulua hiru idatz-zatian hau adierazten du: “ezarritako epetik kanpo egindako administrazio-jardunak, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik ekarriko du egintzaren deuseztagarritasuna”.

Beraz, administrazio-egintzaren akats guztiek ez dute egintzaren deusezetasuna edo deuseztagarritasuna eragiten. Prozedurazko irregulartasun bat da, azken egintzaren deuseztagarritasuna zehazten ez duena, hau da, ez du eraginik egintzaren baliozkotasunean.

- *1,1 milioi euroan esleitutako obra zerbitzu batean harrera akta hilabeteko atzerapenez onartu da SPKLTBn aurreikusitako hilabeteko epearekiko (27. espediente).*

## HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU SAILAREN ALEGAZIOA

Zerbitzuen kontratuko espedientean, badago hilabeteko atzerapena onarpen-aktaren sinaduran, baina prozedurako irregulartasuna da, azken egintzaren deuseztagarritasuna ez dakarrena, hots, ez du eraginik egintzaren baliozkotasunean. Izan ere, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 63. artikuluko 3. atalean hauxe dakar: “ezarritako epetik kanpo egindako administrazio-jardunak, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik ekarriko du egintzaren deuseztagarritasuna”. Hortaz, administrazio-egintzaren akats guztiek ez dute sorrarazten deusezetasunik edo deusezgarritasunik.





- 75 milioi euroan esleituriko zortzi espedientetan, 19 egun eta urtebete bitarteko atzerapenarekin onetsi dira azken ziurtagiriak edo likidazioak SPKLTBn ezarritako 3 hilabete eta hilabeteko epearekiko, onarpen-akta ematen denetik hasita, baina prozedura eskas horrek ez du eraginik egintzaren baliozkotasunean (21, 27, 30, 33, 34, 46, 47, 54 espedienteak).

## HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU SAILAREN ALEGAZIOA

Izan ere, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 63. artikuluko 3. atalean hauxe dakar: “ezarritako epetik kanpo egindako administrazio-jardunak, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik ekarriko du egintzaren deuseztagarritasuna”.

Hortaz, administrazio-egintzaren akats guztiek ez dute sorrarazten deusezetasunik edo deusezgarritasunik.

## EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILAREN ALEGAZIOA

### 21. Ezponda bateko jarduketei buruzko premiazko proiektua BI-637 errepideko 15,5-15,8 K.P.an

2014ko urtarrilaren 25ean BI-637 errepideko 15+500 K.P.ko ezponda baten luiziaren ondoriozko premiazko obra da. Harrezkero, premiazko egoera zuzentzeko hertsiki ezinbestekoak izan diren jarduketak burutu behar izan dira.

Obrek hilabete eta erdiko iraupena zuten, eta obraren onarpen-akta 2014ko apirilaren 1ean izenpetu zen.

Aldi berean, burutzapen-proiektua idatzi zen, 2014ko ekainaren 6an onetsia.

Azken egiaztagiria 2014ko urriaren 21ean onetsi zen, baina atzerapenarekin, zeren eta desfasea gertatu baitzen obraren burutzapenaren eta administrazio-izapidetzearen artean premiazko obretan. Berez, 2016ko otsailaren 26an izenpetu zen obra amaierako likidazioa, aurreikusitako epea gaindituta, berme-aldia bukatu ondoren.

### 30. Ahalmen handiko errepide sarearen artapena. IV. Aldea. 2011-2014. urtea. Ezpondari mallarekin eustea N-240 errepidean.

Hauxe da kontratua: “AHALMEN HANDIKO SAREAREN ARTAPENA, USTIAPENA, MANTENTZEA ETA ERAGIKETA (METROPOLI ALDEA 4 ALDEA)).

2014ko irailaren 1ekoa da onarpen-akta. Berme-aldiaren urtebeteko epea igarota, likidazio-proposamena eman zen 2015eko irailaren 7an.

2015eko irailaren 15ean onetsi zen likidazioa eta abalak itzuli ziren eta, beraz, gure ustez ez dago atzerapenik kasu honetan aipaturiko onespenean.





*Administrazio-kontratazioko espedienterik gabeko gastuen berrikuspenean, hauxe ikusi dugu:*

- *2014an, ondasunen eta zerbitzuen eskuraketak egin dira guztira 320.751 eurokoak, hornitzailerekin kontratatutako 8 jarduketei dagozkienak, betiere kontratu txikia erabiliz. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetu behar ziren, horretarako eskaintzak eskatuta. Gainera, guztira 302.840 euroko gastuak ageri dira, eta horren lizitazioa prezio unitarioen bidez egin liteke, zeren eta urtero kontratatzen diren gastuak baitira eta horien inguruan urtean izango den beharra zenbatetsi egin baitaiteke (ikus A.10).*

## **IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILAREN ALEGAZIOA**

### **Estazio hidrometereologikoetako segurtasun-sistemak**

Egoera bera gertatzen da estazio hidrometereologikoetako segurtasun-sisteman, horietan ere bi fakturarekin, bata segurtasun-sistema orokorraren hornidurari eta instalazioari dagokiena (13.999 euroak) eta bestea Erreskatatzaile Erretraktilaren faktura bati dagokiona (13.272,36 euroak).

Nolanahi ere, PREMIAZKO konponbidea behar zuen arazo larria antzeman zuen ARRISKUEN EBALUAZIO baten ondoriozko uneko jarduketa da.

### **EHUK Gorbeian eta Astondoko GILen buruturiko flora-populazioen jarraipena**

Kokapena (kostaldea eta mendialdea) eta taldeen arteko ezberdintasuna direla-eta, jarraipen espezializatua egin behar da horietako bakoitzean.

### **Apo lasterkariaren populazioen jarraipena**

Bi espediente dira, bata 2013koa eta bestea 2014koa.

## **KULTURA SAILAREN ALEGAZIOA**

### **Etxepintxo baserriko horma-pinturako jarduketari buruzko azterlana**

Etxe-pintxo etxea (XVIII. mendea) salbuetsitako eraikina da, oin karratukoa eta lau isurialdeko teilatua duena. Eraikuntzako elementurik interesgarriena, zalantzarik gabe, fatxada nagusian dago: goiko bi solairuetan pinturak ageri dira, eta hori ez da batere ohikoa eskualdean. Garaiko apaingarriak dituzte, okre koloreko lerroekin inguratuta: lehen solairuan, hiru lagun ageri dira egongelan, errezelekin eta altzariekin. Beste margo-lan batean, bi zaldunen arteko borroka dago irudikatuta. Bigarren solairuan, eskuineko margo-lanean, landa giroko eszena ageri da, eta ezkerrekoan, zaldun bat ikusten da. Erdiko leiho txikien arteko guneeetan, bi zaldunen irudiak daude, eta leihoen eta balkoiko baoaren arteko gunean, apaingarri arkitektonikoak ageri dira.

□



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas



Aspalditxotik hona, aipaturiko pintura horiek deseginez joateko arriskua dago, edo desagertzeko, premiaz jardun ezean. Jabeen baimena lortutakoan, honako lan hau agindu zion Bizkaiko Foru Aldundiak 2014ko uztailaren 10ean Equipo 7, Restauracion S.A. enpresari: “Berriatuko (Bizkaia) “Etxe-pintxo” izeneko baserriko fatxada nagusiko horma-pintura apaingarriak burutzeko jarduketa-proposamenerako azterlana eta proiektua”, guztira 21.777,58 euroak (BEZ barne).

Eginiko azterlanetik ondorioztatu zenez, hasieran espero zena baino nahikoa okerragoa zen horma-pinturaren egoera eta, beraz, premiazko jarduketa behar zuen. Horregatik, abuztuaren 30ean, premiazko zerbitzua kontratatu zen enpresa berarekin. Aurretik azterlana egin zuen enpresa horrek, pinturak gal ez zitezen. Izan ere, arestian adierazi denez, apartekoak dira Bizkaiko Lurralde Historikoan. Kontratu hori 5.384,50 -koa izan zen, funtsean premiazko neurriak burutzeko aldamioei dagokiena.

Azken finean, Bizkaiko Foru Aldundiak premiaz jardun behar izan zuen agindutako azterlanaren ondorioen ziozko ezustekoari aurre egiteko. Beraz, ez zen egon maniobra-marjina handiagorik. Pinturak gaur egun egoera onean daude eta, hortaz, unearren premiazkotasuna behar bezala kudeatu zela deritzogu.

## **HERRI ADMINISTRAZIOARAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU SAILAREN ALEGAZIOA**

BAO ateratzea, baliozkotzea, kargatzea eta muntatzea –maiatzetik azarora

BAO ateratzea, baliozkotzea eta muntatzea –urtarriletik apirilera eta abenduan

Lehenik eta behin esan behar da batera egingo direla bi espedientei buruzko alegazioak, zeren eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren argitalpen elektronikoarekin loturiko lanak baitira.



Bi zerbitzu-kontraturik dagozkion fakturak dira, eta horien kontratuko helburuak ondo berezita daude. Alde batetik, “Bizkaiko Aldizkari Ofiziala ateratzea, baliozkotzea, kargatzea eta argitaratzea” delakoa, hots, Aldizkariaren deskonposizioari dagokiona eta, bestetik, “aldizkariaren muntaketa”ri dagozkionak.

Adierazi beharra dago 2013an aurreikusita zegoela Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren kudeaketa integraleko programa informatikoa ezartzea, muntatzeko eta ateratzeko lanak kentzen zituena, zeren eta automatikoki egingo baitira aplikatibo horretatik.

Alabaina, proiektuaren tamainagatik eta hainbat arazo tekniko tarteko, programa hori ezin izan zen martxan jarri 2013. urtean, eta atzeratu egin zen 2014. urtean. Hala eta guztiz ere, 2016ko amaierarako ezartzea aurreikusten da.

Hori ikusita, Lehendakaritza Sailak prozedura negoziatuak formalizatu zituen, baita “Bizkaiko Aldizkari Ofiziala ateratzea, baliozkotzea, kargatzea eta argitaratzea” deritzonerako (esleipenari buruzko uztailaren 20ko 315/2015 Foru Agindua) eta beste bat “Bizkaiko Aldizkari Ofiziala muntatzeko” (esleipenari buruzko uztailaren 20ko 317/2015 Foru Agindua), eta burutzapen-epeak 2015eko uztailaren hasi eta 2016ko ekainaren 30ean bukatu ziren. Aurreikuspenen arabera, 2016ko amaieran ezarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren kudeaketa integralerako programa informatikoa.

### **Berokuntza eta aire egokituaren sistemak mantentzea eta konpontzea**

Lehendakaritza Sailaren menpeko eraikinak 2014an mantentzeko kontratuak (Foru Jauregia, Delcalux eraikina, Foru inprimategia, Ganguren administrazio agiritegia, Errekalde, 30, Errekalde zumarkalea, 18, etab) hauxe dakar: garajeetako karbono monoxidoa eta aire egokituaren sistema mantentzea eta berokuntza dakartzatza, eta Servical E., S.L. enpresari esleitu zitzaion kontratu txikiaren bidez.

Kontratu horrek prebentzioko (1027/2007 EDren arabera, Eraikinetako Instalazio Elektrikoen Erregelamendua, hileroko funtzionamendua, errendimendua, martxan jartzea eta bakterioen tratamendua egiaztatzea barne) eta zuzenketako zerbitzuak ditu.

Denboran aurreikus daiteke prebentzioko mantentzea, eta 36 faktura ekarri zituen, guztira 18.252,80 eurokoak, BEZa barne, hots, kontratu txikiaren mugen barrua.

Zuzenketako mantentzea ezin aurreikus daiteke denboran, eta instalazioaren ohiko funtzionamenduan izan litezkeen matxuren konponketa biltzen du, baina kostua ez dago arestian ezarritako kopuruaren barruan sartuta, ezta piezak edo materialak aldatzea, kobrezko edo altzairuzko hodiak konpontzea, motorren birbanaketa ere, zeren eta zaila baita aurretik ezartzea instalazioan izango den matxura kopurua eta mota; izan ere, instalazio asko zaharrak direnez gero eta zaharkituta daudenez gero, arazoak dakartzate. 2014an, 31 fakturak egin behar izan ziren mantentze-lanengatik, guztira 44.395,09 euro.

Kontratuaren indarraldian, instalazioetan gorabehera asko gertatu dira, konpondu behar direnak, eta prebentziozko mantentze gisa kontratatutako lanetan sartzen ez direnak.

Horrela, HKEEren txostenean dauden fakturetako batzuek mantentze kontratu berezian dauden prebentziozko mantentze prestazioei dagozkie, eta beste batzuk mantentze



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

zuzentzailean jasotako konponketa lanei dagozkie, itundutako baldintzen arabera (hiruhilekoen mantentze-fakturak) eta konponketako beste lan batzuk ere, zuzenketako mantentzearen barnean bilduak, itundutako baldintzen arabera.

Soilik informazio orokorra emateko eta ez zehaztasunez ezartzeko, ikusten dugunez hauexek daude fakturaturiko lanen artean: fan-coils deritzenak martxan jartzea, kondentsatuen ponpa aldatzea, hautaketa-plaka jartzea, banaketako joan-etorriko hodiedako kolektoreak egitea, Split ekipoak aldatzea, tenkagailu berriak, motohaizagailua aldatzea, karterreko erresistentziak aldatzea aire-ekipamenduko konpresoreetan, etab. Lan horiek, banaka hartuta, ez dute gainditzen kontratu txikia, eta higiezin desberdinetan burutu dira; aurreikusteko modukoak dira. Fakturetan materialen kostua eta lan-eskuaren kostua adierazten dira, itundutako prezioan.

Horrengatik guztiagatik, konponketen kasuistika ezberdina dela-eta, zaila da prozedura negoziatuaren planteamendua aplikatzea.

## EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILAREN ALEGAZIOA

### Bide-segurtasunaren auditoria

Bide-segurtasuneko auditoriaren hiru faktura daude, eta horren arabera, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetu behar ziren, aurreikus daitezkeen urteko gastuak baitira.

2014ko uztailaren 2an, bide-azpiegituren segurtasuna kudeatzeari buruzko 80/2014 Dekretua onetsi zen. Onespen horren ondotik, premiazkoa zen dekretua aplikatzeko eskuliburu teknikoak garatu behar ziren premiaz, baita hura justifikatzeko auditoria pilotuak egitea ere. Premiazkotasun horren ondorioz, ez zen hasi prozedura negoziatua lanak burutzeko, zeren eta arauetan bildutako bide-segurtasuneko metodologiak ezartzeko prozeduran ezin onets zitezkeen atzerapenak ekarriko baitzituzten.

- *Prokuradoreek emandako zerbitzuak, urteko 178.315 euroko gastua dutenak, bi pertsonekin zuzenean kontratatuak. Gastu horiek egiturazkoak dira, eta beren bolumena dela eta, publizitate- eta lehia-printzipioak aplikatuz kontratatu beharko lirateke.*

## HERRI ADMINISTRAZIOARAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU SAILAREN ALEGAZIOA

AJZ- APRI honen alegazioak egin dira gai honi erantzuteko soil-soilik: Prokuradoreen zerbitzuak, urtean 178.315 euroko gastua dutenak, zuzenean kontratatu dira bi profesionalekin. Gastu horiek egiturazkoak dira, eta beren bolumena dela eta, publizitate- eta lehia-printzipioak aplikatuz kontratatu beharko lirateke.

Lehenik eta behin azpimarratu behar da ez dela legezkotasuna zalantzan jartzen; gomendio hutsa da. Nolanahi ere, argi eta garbi utzi behar dugu legezkoa dela jarduketa, hauxe aipatuta:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

1. Auzitegietako prokuradoreak kontratatzean, boterearen bidez eratzen den mandatu-kontratu baten aurrean gaude, prozedura-arauak berak ezartzen baitu ahalorde-emailearen eta prokuradorearen arteko harremanei buruzko xedapen berezirik ez dagoenez, legeria zibilean ezarritako arauak aginduko duela, eta horrek berekin dakar Kode Zibileko 1709. eta 1739. artikuluetara jotzea.
2. Beraz, prokuradore orori kontratua egitean, banakako kontratu bat egiten ariko gara. **Enkargu bakoitza kontratu independente eta desberdin bat da auzi bakoitzerakoa da.** Ez dago aurretik prozedurarik edo auzirik ez duen kontraturik, eta kontratu bakoitzaren zenbatekoa prozeduraren zenbatekoaren arabera izango da. Hau da, prokuradoreak ez du lan egingo, baldin eta Foru Aldundiak aurretik ez badio auzi baten edo errekurtsio baten enkargua egin.
3. Prokuradoreen ordainsariak ARANTZELAREN menpe daude eta, beraz, berdina izango dira prokuradorea edozein delarik ere. Aldundiaren gastua berdina izango da beti prokuradorea edozein delarik ere, zeren eta, gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak deskonturik handiena eta globalena ematen baitie Bilboko eta Madrilgo bere prokuradoreei, Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz. Estatutu hori abenduaren 5eko 1281/2002 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen (BOE, 2002ko abenduaren 21ekoa), deskontua %10etik %12ra izatea aldatu zuen azaroaren 7ko 1373/2003 Errege Dekretuak (BOE, 2003ko azaroaren 3koa) aldatu zuena hain zuzen ere.
4. Esandakoa arrazoitzeko, 2008ko urtarrilaren 24ko 58-07 Kontratazioko Aholku Batzordearen txostena eranstean da, prokuradoreen kontratazioari buruzkoa. Hona hemen ondorioa..... *“Administrazio-kontratazioko Aholku Batzordeak azaldutakoa ikusita, muga-zergazko xedapenak derrigorrezkoak direla ikusita, soilik hau negoziatzen daiteke, Administrazio Publiko baten eta prokuradore baten arteko akordioan: arauz ezarritako tarifekiko portzentaje-zero murrizketa, eta asko jota, portzentaje-zero 12 puntuko tope batekin. Negoziaziorako marjina hori indarreko araudian xedaturikoa da eta, beraz, erabat aplikatu beharrezkoa da, herri administrazio baten eta prokuradore baten arteko kontratua izanik ere”.* Eginiko kontsultari erantzuteko, honako hau ondorioztatzen daiteke: arestian azaldutako araudiarekin bat etorriz, ezin ezar daiteke herri administrazio baten eta prokuradore baten arteko kontratuko prezioztat urteko zenbateko bat, hamabi hiletan ordaindu beharrezkoa, arantzelaren sistema edozein delarik ere.
5. Hau da, Lege Aholkularitzako Zerbitzua da. Arantzela, %12ko beherapenarekin. Arantzel-sistemak oraindik indarrean jarraitzen du. Espainiako Prokuradoreen Elkargoko Kontseilu Nagusiko zirkularra eranstean da.
6. Gainera, AJZ honek, 2014an, gastu guztiak ordaindu zizkien, honekin batera doan eranskinaren arabera, hura 2014ko auzietan ordezkatzeko zuten prokuradore guztiei. Fakturak Bizkaiko Lurralde Historikoko 2014rako Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 20ko 14/2013 Foru Arauko (BAO, 2013-12-27) 13.4. artikuluan xedaturikoaren barruan egongo lirake. Artikulu horri jarraiki, 18.000 -tik (BEZ barne) beherako kontratuetarako, faktura bera izan daiteke espedientea, eta horrelakoetan,



horren bidez adierazten da baimena, disposizioa eta ordaintzeko betekizuna. Ordainketak banan banan jasotzen dituen dokumentua erantsi da. Kontratu txikian ere (18.000 euro, BEZ kanpo), 201. artikuluan (2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 26koa, Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina) aipatua, legezkoa da aukeraketa aske egitea (Legegintza Errege Dekretu horretako 56. artikulua), eta gastua onartzea eta faktura dira eskatzen den izapidetze bakarra.

Hau da, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza saileko Lege Aholkularitzarako Zerbitzuak 2012an egindako prokuradore-kontratazio osoa guztiz egokia da eta indarrean dagoen kontratuei buruzko legedia betetzen da. Ezin da lizitaziorik egin, prezioa legeak agintzen duelako: aduana-zerga, ken %12 (BFAk auzi edo enkargu bakoitzagatik ordaintzen duena).

### III.1.5 DIRU-LAGUNTZAK

#### Diru-laguntza izendunak (ikus A.11.1)

- *Guztira 1,1 milioi eurokoak diren eta eman diren lau diru-laguntzak arautzeko hitzarmenak eta emakida-ebazpenak orokorrak dira eta ez dute edukia eta zenbatekoa garatzen partida espezifikokoetan (DEren 50.3. art.).*

### EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILAREN ALEGAZIOA

III.1.5. atalean, diru-laguntza izendunei dagokienez, hauxe esaten da: emakida-ebazpenak eta hitzarmen arauemaileak orokorrak dira, eta eragozpen hori justifikatzeko, Diru-laguntzen Erregelamenduko 50.3. artikuluan aipatzen da (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua). Eragozpen formala da, zalantzarik gabe, eta hurrengo ekitaldietan konpondu behar bada ere, argitu egin daiteke diru-laguntza horietako aurrekontuko eskakizunak kontuan hartzen badira. Aintzat hartu behar da abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuak onetsitako Aurrekontuen Erregelamenduko 14. artikuluan ezarritako aginduzko txostena izan behar dutela diru-laguntza izendunek, eta txostena aurrekontuari eransten zaio (“diru-laguntza izendun bakoitzeko txostena, non hauexek egiaztatzen diren: laguntzaren destino zehatza; bere interes publikoa, soziala, ekonomikoa eta humanitarioa egiaztatzeko arrazoiak eta lortu nahi diren helburuak lortzeko deialdi publikoa egiteko ezintasuna”). Txostenean, diru-laguntzan edukia xehetasunez azaldu behar da. Nolanahi ere, 50.3. artikuluan ezarrita dagoenez, ebazpenak edo, hala denean, hitzarmenak “helburuaren ezarpena” bildu beharko du, eta hori bete egiten da aipaturiko diru-laguntzetan.

#### Diru-laguntza Bilbao Metropoli 30i.

Herri Kontuen Euskal Auzitegiak adierazitakoaren arabera, orokorra da Bilbao Metropoli Elkartearekin eginiko hitzarmenaren xedea. Helburu hori hitzarmenean bertan argituta gelditzen bada ere, aintzat hartuko da etorkizunean xehetasun handiagoa emate aldera.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- *Bilbo Metropolia Biziberritzeko Elkartearantzako (Bilbao Metropoli 30) 500.000 euroko diru-laguntzaren justifikazioak ez du biltzen onuradunak bidaia agentzia bat kontratatzeko hiru eskaintzaren eskaera egiaztatzea, guztira 77.860 euro.*

## **EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILAREN ALEGAZIOA**

**Diru-laguntza Bilbao Metropoli 30i.**

Txostenak dakarrenez, Bilbao Metropoli 30entzako diru-laguntzaren justifikazioak ez du biltzen bidaia agentzia kontratatzeko hiru eskaintzaren eskaera. Justifikazioan, enpresa hori kontratatzeko zioa ageri da, aire linea nagusiak dituzten enpresetako akordioak direla bide. Horren bidez, bermatu egiten da eskaintzarik ekonomikoenak eskuratu ahal izatea.

### **Zuzeneko diru-laguntzak**

*Hautaturiko zuzeneko diru-laguntzak aztertuta (ikus A.11.2), hauxe ikusi dugu:*

- *Erakundeentzako 10,7 milioi euroan emandako 21 diru-laguntza daude. Izan ere, erakunde horien espezifikotasunagatik edota antzeko proiekturako aurreko ekitaldietan emakidak errepikatu izanagatik, diru-laguntza izenduntzat hartzea komeni den azertu beharko litzateke.*

## **IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILAREN ALEGAZIOA**

Hurrengo ekitaldirako, gomendio hau izango da kontuan, hots, diru-laguntza izenduntzat hartzea, urteetan errepikatzen direnak (Bizkaiko Ehiza Federazioa eta beste antzeko batzuk).

### **KULTURA SAILAREN ALEGAZIOA**

**Bizkaiko Euskal Pilotako Federakundea: Pilotagazte programa**

**Bizkaiko Euskal Joko eta Kirolen Federakundea: Sustraiak Sustatzen programa**

**Bizkaiko Arraun Federakuntza: zabalkunde-kanpainak eta entrenatzaileen maila hobetzea**  
2016. urteari dagokion aurrekontuan, sartuta daude dagoeneko diru-laguntza horiek diru-laguntza izenduntzat.

**Bizkaiko Futbol Federakundea: Futbola eta kirol egiturak sustatzea 2014.**

2016. urteari dagokion aurrekontuan, sartuta dago dagoeneko helburu horretarako emakida Bizkaiko Futbol Federakuntzarentzat.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### **Bilboko Apezpikutzak: elizaren ondareko ondasunak zaharberritzea**

Diru-laguntzen atalari dagokionez, Bilboko Apezpikutzak aurrekontuetan erakunde izendun gisa agertzea gomendatzen dio HKEAk Bizkaiko Foru Aldundiari. Ildo horretan, Foru Erakundeak, gomendio hori aintzat hartuta, dagoeneko izendun gisa sartu du Bilboko Apezpikutzak 2016rako beren aurrekontuen dokumentuetan.

### **Ate Irekiak Elkarteak: kultura-proiektuen finantzaketa**

Zuzeneko diru-laguntzaren bidea erabili da, ezinezkoa delako aurkezturiko proiektuarentzako laguntza ematea diru-laguntzen ohiko deialdiaren bidez, haren berezitasunak direla eta. Egoera hori hainbat ekitalditan errepikatu da, eta jakin badakite zuzeneko diru-laguntzaren beste aukera batzuk bilatu beharra dagoela.

HKEAk proposatzen duena kontuan hartuko den gomendioa da. Hasteko, 2016an ez da errepikatuko zuzeneko diru-laguntza hori.

## **EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILAREN ALEGAZIOA**

### **Diru-laguntza Bizkaia Talent Elkarteari.**

HKEAk adierazi duenez, Bizkaia Talent Elkartearentzako diru-laguntza, bere berezitasunagatik edo errepikatzeagatik, izendun gisa sartzea komeni izango litzateke. Gomendioa aintzat hartuta, izenduna izango da etorkizunean.

- *Guztira 461.000 eurokoak diren eta Bilbao Metropoli 30i eman zaizkion hiru diru-laguntzak arautzeko hitzarmenak eta emakida-ebazpenak orokorrak dira eta ez dituzte edukia eta zenbatekoa garatzen partida espezifikoetan (DEren 50.3. art.).*

## **EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILAREN ALEGAZIOA**

Atal berean, zuzeneko diru-laguntzei dagokionez, eragozpen bera errepikatzen da, Diru-laguntzen Erregelamenduko 50.3 artikulua aipatuta. Eragozpen hori dela eta, alegazio hau egin beharra dago: ebazpenean xedeari buruzko epigrafe espezifikorik biltzen ez bada ere, ukaezina da nahikoa zehaztuta dagoela xedea. Zehazki, Bizkaia European sustatzeko Metropoli 30i emandako diru-laguntzari buruzko ebazpenean, hauxe ageri da: "Bilbo Metropolia Biziberritzeko Elkarteak da Bizkaia sustatzeko arduraduna, Bizkaiko turismoa sustatzeko ekitaldietan eta jardueretan 2014an, "Bizkaia European sustatzea 2014" programaren baitan. Proiektu horren barenean, Bizkaiko turismoa Europako hiriburuetan buruturiko ekitaldietan eta jardueretan sustatzea biltzen da, baita Ekonomia Sustatzeko Saileko Turismo eta Kanpo Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiak estrategikotzat jotako Europako hainbat ekitalditan ere. Horien artean, Europa Xake Txapelketa nabarmentzen da.





### **Bizkaia munduan sustatzeko diru-laguntza.**

Bizkaia munduan sustatzeko onuradun berari esleituriko diru-laguntzari dagokionez, hauxe ezarri da diru-laguntzari buruzko ebazpenean: "Bilbo Metropolia Biziberritzeko Elkarteak da Bizkaia sustatzeko arduraduna Bizkaiko turismoa nazioartean sustatzeko ekitaldietan eta jardueretan 2014an, "Bizkaia Europan sustatzea 2014" programaren baitan. Proiektu horren baitan, Bizkaiko turismoa Turkian, Kanadan, etab. buruturiko ezitaldietan eta jardueretan sustatzea biltzen da, baita Ekonomia Sustatzeko Saileko Turismo eta Kanpo Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiak estrategikotzat jotako Europako hainbat ekitalditan ere.

Bestalde, diru-laguntza izendunen inguruan esandakoa esan daiteke berriz ere atal honetan Diru-laguntzen Erregelamenduko 50.3. artikulua norainokoari dagokionez. Hortaz, argudio gisa esan daiteke diru-laguntza horiek xedapen horretako betekizunak betetzen dituztela.

- *Euskal Joko eta Kirolen eta Arraun Federakuntzen diru-laguntzak 78.000 eta 59.000 euro dira hurrenez hurren, eta ez dute aurkeztu zinpeko adierazpena, hain zuzen ere zerrenda xehatua beren beregi bildutakoetatik aparte diruz lagundutako proiektuari egotz dakiokeen beste diru-sarrerarik ez izateari buruzkoa, ezta gastuen zerrendan sartutako kostu orokorrak eta zeharkako kostuak banatzeko irizpideari buruzko azalpena ere.*

### **KULTURA SAILAREN ALEGAZIOA**

Frogatu denez, espedientea aztertu ondoren, ez zen egiaztatu zinpeko adierazpena aurkeztu izana Bizkaiko Euskal Joko eta Kirolen Federakuntzaren eta Bizkaiko Arraun Federakuntzaren kasuan. Hori zuzendu egin da, onuradunei errekerimendua eginda.

Kostu orokorrak eta zuzeneko kostuak banatzeko irizpideei buruzko azalpena dela eta, kontrakoa dioen beren beregi eginiko adierazpena izan ezean, diruz lagundutako proiektuari egozten diote erakundeko onuradunek fakturaren edo gastuaren frogagiriaren bidez justifikaturiko gastuen %100.

### ***Deialdi publikoaren bidez emandako diru-laguntzak***

*Ez da egiaztatu onuradunak hiru eskaintza eskatu izana diru-laguntza jaso dezaketen gastuak kontratatu baino lehen (diru-laguntzei buruzko fako 29.3. art.) 1,5 milioi euroan emandako diru-laguntzen justifikazioan. hiru foru dekreturen bidez arauturiko diru-laguntza horietan, guztira, 7,3 milioi euro eman ziren (ikus a.11.3).*

### **IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILAREN ALEGAZIOA**

Nekazaritzako ustiatzei ematen zaizkien laguntzei buruzko 166/2008 FD

Bizitegi-eraikinetan energia aurrezteko proiektuei buruzko 204/2013 FD.



Energia-eraginkortasunaren arloko tokiko ekintza-planak ezartzeari buruzko 25/2013 FD.

Diru-laguntzak arautzeko dekretu berrietan, beren beregi ezarri da onuradunek 3 eskaintza eskatu izana egiaztatu behar dela kontratu txikia baino handiagoak diren gastuak edo inbertsioak kontratatzen direnean.

## **III.2 GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA**

### **III.2.1 LANGILERIA-GASTUAK**

- *Gobernu Kontseiluak, 2014ko urriaren 21ean, BFAko eta bere erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-itunpeko enplegatuen baldintzak arautzeko erabakia onetsi zuen, eta horren xedapenen artean, 2014. urterako, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 1 20/2012 EDk baliogabetu zuen 2012ko abendurako aparteko ordainsariaren ordainketa arautzen du. Aparteko ordainsari hori ordaintzeko, 2,7 milioi euro erabili dituzte enpresa erakunde publikoek, merkataritza sozietateek eta foru fundazioek, baina ordainketa horrek ez du betetzen aipaturiko ED-1 horren 2.4. artikulua, zeren eta Estatuko 2014ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legeak ez baitakar posibilitate hori. Alabaina, Estatuko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen hamargarren xedapen gehigarriak ahalbidetu egiten du 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren %24,04 ordaintzea, eta Estatuko 2016rako Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 20ko 48/2015 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriak oraindik berreskuratu ez diren kopuruak ordaintzea aurreikusten du.*

## **GUFE-REN ALDEGAZIOA**

2014ko aparteko ordainsaria ordaintzea ez doa ezein aurrekontu-araudiren kontra, hain zuzen BFAko eta bere erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-itunpeko langileriaren lan baldintzak arautzeko 2014ko urriaren 21eko Gobernu Batzordean hartutako erabakian bilduta baitago, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 ED-1aren bidez kendu zen 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ordaintzeko aurreikuspena dela bide.

Bidezkoa da ondorio hori ateratzea espedientearen barruko txostenetan ezarritakoagatik; izan ere, laburpen gisa, hauxe zehazten zen: 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kentzeari buruzko ekarpen korrelatiboak 2014. urtearen barruan gauzatu behar zirela, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-iraunkortasunerako beharkizunak betetzen zirela ulertzen bazen, zeren eta ez baitzegoen beste betebeharririk edo baldintzarik ordainsari hori geldiarazteko. Neurri horrek hobeturiko eta finkaturiko eskubideetan zuen eragina, zeren eta betetako baldintza baten menpe baitzegoen ordainsaria ordaintzea (20/2012 LEDren 2.4. artikulua), aipaturiko espedienteko txosten guztiek adierazten zuten legez.



Aldi berean, egiaztatu egin zen kreditua sartzeak eta 2014an ordaintzeak bete egiten zuela Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan bildutakoa.

Horregatik, ez zuen oinarri juridikorik Foru Erakundeak diru-ekarpen hori atxikitzeak.

Hori dela eta, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren baldintza bete zela berretsitakoan, ekarpenak 2014ko ekitaldian gauzatzea erabat bidezkoa zen legearen aldetik, 20/2012 LEDren 2.4. artikuluan ezarri ziren baldintzekin bat etorrita betiere.

Horrenbestez, esan beharra dago ezen, ordainsaria aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 LEDren bidez kentzeko, zenbait beharkizun ezarri zirela, eta beharkizun horiek bete egin zituen Bizkaiko Foru Aldundiak 2014ko ekitaldian. Horregatik, ordainketa horrek bete egin duen araudia; araudiari lotzen zaio erabat.

### III.2.2 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

*Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioari eta kontratu txikiaren bidez (ikus A.12.2) eginiko gastuari buruzko espedienteak aztertuta, hauxe ikusi da:*

- *GUFek izapideturiko kontratazio-espedituetan, kontratugilearen profila biltzen duen sistema informatikoa ez du bitartekorik profil horrek dakarren informazioa ezagutarazten hasteko unea sinesgarriro egiaztatzeko.*

### GUFEN ALDEGAZIOA

GUFEn kontratugilearen profilak, gaur egun, bertan bildutako informazioa ezagutarazteko data dauka. Gure sistemak posta elektronikoa igortzen die kontratugilearen profilean harpideturiko erabiltzaile guztiei aurretiazko iragarkiei eta lizitazio iragarkiei buruzko informazioa Egunkari Ofizialetan argitaratzen den egun berean. Gaur egun, kontratugilearen profilak ez du bitartekorik informazioa ezagutarazten hasteko unea sinesgarriro egiaztatzeko, baina, hala ere, BFAk aurreko jarritakoaren sistema homologatua jartzeko eskatu die dagoeneko GUFek gure teknikari informatikoei. Gailu horri esker, profilak dakarren informazioa ezagutarazteko eguna sinesgarriro egiaztatu bakarrik ez, dokumentuek jatorrizkoaren aldean aldaketarik ez dutela ere bermatu ahal izango da. Aurreikuspenen arabera, kontratugilearen profilean argitaratuko den 2016ko kontratazioak sinesgarritasun-zigilua izango du.

- *1,5 milioi euroan adjudikaturiko bi zerbitzu-kontraturen HAKPe mugak erakusten dizkigute, hain zuzen ere neurritz kanpoko eta ezohiko eskaintzen ondorioz bete ezin daitekeen proposamena antzematea ahalbidetuko luketen mugak (1, 3 espedienteak).*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## GUFE-REN ALEGAZIOA

SPKLTBren 152. artikulua dakarrenez, “Ezohiko edo neurritz kanpoko eskaintzak”... “parametro objektiboak adierazi ahal izango dira pleguetan, hala denean, hauxe antzemateko: proposamena ezin bete daitekeela ezohiko edo neurritz kanpoko balioak sartu izanaren ondorioz. “

Kontratazio organoari eskaintzen zaion posibilitatea da, baina ez da lege betebeharra. Posibilitate hori lizitazio jakin batean biltzeak berekin dakartza, nahitaez, arauan aurretik ezarritako prozesu-bideak eta bide materialak (interesatuari entzunaldia ematea, bideragarritasuna egiaztatzea,...).

Gure kasuan, lizitatuzaileek aipaturiko espedienteetarako (1 eta 3) aurkezturiko eskaintza batek ere ez zuen izan zuen neurritz kanpoko preziorik zerbitzua emateko.

- *2014ko ekitaldian, sei jarduketari dagozkion ondasunen eta zerbitzuen eskuraketak burutu dira, guztira 244.888 eurokoak, horietako bakoitza hornitzaile bakarrarekin kontratatatuak eta kontratu txikiaren prozeduraren bidez izapidetuak, edo bestela, publikataterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetu behar ziren, eskaintzak eskatuta, edo bestela prezio unitarioetan egin zitekeen lizitazioak, zeren eta kontratatu ohi diren gastuak baitira eta urterako izan daitekeen beharra zenbatetsi egin baitaiteke.*

## GUFE-REN ALEGAZIOA

Zerbitzua ematen den edo ondasunak banaka kontsumitzen diren hogeita hamar zentro logistiko bakoitzetik egin dira ondasunen eta zerbitzuen erosketak.

Horrela egitea gomendatzen da, gastua kudeatzen duen zentro bakoitzaren berezitasuna eta kontratataturikoaren –zerbitzuak nahiz hornidurak izan- berezitasunak direla-eta.

### III.2.3 DIRUZAINNTZA

*Enpresa mankomunatuak ezartzea gomendatzen da zentroen 24 banku-kontuen funtsak baliatu ahal izateko.*

## GUFE-REN ALEGAZIOA

Erakundeko 30 lan-toki guztien funtsak birjartzeko kontuak dira enpresa mankomunatuak ageri ez diren kontuak. Kontu horien bidez, ezusteko gastu txikiei egiten zaie aurre, baita gastuak ahalbidetu zituen aurretiazko baimenari lehen enpresa mankomunatuarekin egin bazen.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### **III.3 ENPRESA SEKTORE PUBLIKOA**

#### **III.3.1 AURREKONTUA**

- *Bizkaia-Bizkaialde eta Juan Crisostomo de Arriaga-BOS fundazioek ez zituzten egin BFAko sektore publikoarekiko kontuak bateratzeari buruzko txostenak.*

### **BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOAREN ALEGAZIOA**

IV. eranskin gisa gehitu da Bizkaia Bizkaialdi Fundazioaren saldoen bateratzea, 2014ko ekitaldiari dagokiona.

#### **III.3.2 LANGILERIA-GASTUAK**

